

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa, Arabako zerga-sistemako hainbat arau eta zerga aldatzekoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa, Arabako zerga-sistemako hainbat arau eta zerga aldatzekoa.

#### ZIOEN AZALPENA

2014ko ekitalditik aurrerako ondorioak dituen zuzeneko zergapetzearen eredu berri bat indarrean jarri izanak Araban burutu egin zuen ondarearen gaineko zerga 2013ko ekitaldirako berreskuratzearekin abiatu zen erreforma-prozesua. Eredu berri horrek indarrean hiru urte daramatzanean ebaluatu egin dira zer emaitza lortu diren, egiaztatzearen ea zenbateraino erantzun zaien eredu hori onartzerakoan jadetxi nahi ziren helburuei, zeinak baitziren, Araba modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorrago lortzea, eta, bide batez, zerga-sistema bidezkoago, progresiboago eta eraginkorrago bat sustatzea. Bada, analisisia amaituta, ondorioztatuta da Araban egindako zuzeneko zergapetzearen erreforma lagungarria izan dela, hein handi batean, haren bidez lortu nahi ziren helburuak erdiesteko.

Hori dela eta, foru-arau honek ez du besterik egiten zenbait aldaketa beharrezko sartzea baino gaur dauzkagun tributuetan, helburuok indartu eta haien betetze-maila handitzeko. Ekonomia-jardueraren egungo suspertzeak aldaketa horiek egitea eskatzen du, fiskalitatea erabiliz susperraldi ekonomikoa sendotzen laguntzeko, baina ahaztu gabe Arabak egun dituen zerbitzu publikoen maila mantentzeko beharrezkoa den finantza-nahikotasuna.

Horretarako, foru-arau honek zenbait tributu-neurri berritzaile sartzen ditu edo aldatu eta doitu egiten ditu zuzeneko zergapetzearen mota nagusiei lotuta indarrean dauden tributu-tratamenduetako batzuk.

Pertsona Fisikoen gaineko Zergari dagokionez, nabarmendu behar da desplazatutako langileen araubidean egindako aldaketa, bai eta sortu berri diren edo izaera berritzailea duten mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertainetan inbertitzeagatiko kenkariaren erregulazio berria. Nabarmenezkoa da, halaber, jarduera ekonomikoa hasteagatiko kenkari berria, bai eta arbasoengatik, ondorengoengatik eta 4.000 biztanle baino gutxiago duen Arabako udalerrri batean ohiko bizilekua ezartzen duten pertsonen ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariaren handitzea.

Ondarearen zergan salbuespenak jaso dira honako gai hauekin lotuta: desplazatutako langileen araubidea, sortu berri diren edo izaera berritzailea duten mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertainetako ekintzak edo partaidetzak, eta beren zerbitzuak ematen dituzten enpresetan langileek parte hartzea.

Sozietateen gaineko Zergan honako neurri hauek nabarmentzen dira, besteak beste: gastu finantzarioen kengarritasunaren mugatzea, gutxitzea, modu progresiboan bi urtetan, tipo orokorrean tributatzeko duten zenbait entitateei aplikagarri zaien zerga-tipoak edo gaur egungo ehuneko 21eko edo ehuneko 35eko tipoak, bai eta handitzea, bi urtetan baita ere, gutxieneko tributazioa.

Era berean, mugatzeak jaso dira aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen aplikaziorako, aldatu egin da ezohiko etekinen berrinbertsioaren araubidea, bai eta jabetza intelektuala edo industrialagatiko murrizketa.

Kenkariei dagokienez, aldatu da enplegua sortzeagatiko kenkaria -mantendu egiten da lan-kontratuak izaera mugagabea izatea- eta betekizun berriak jaso dira. Halaber, kenkarien muga murriztu da eta, berritasun gisa, muga ezarri da gaur egun mugarik ez duten kenkariei dagokienez. Azkenik, zeinbat entitaterentzat, ordainketa zatikatua ezartzen da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan nabarmentzen da autolikidazioen aurkezpenaren erregulazioa. Prozedura telematikoak ezarri dira.

Zerga Foru Arau Orokorrean nabarmentzen da kendu egin direla graduazio-irizpideetatik datuak ezkutatzegatiko zehapenak, eta era berean, kontzeptu hori zenbait zerga arau-hausteen barruan jaso da.

Azkenik, arautu egin da berrikuntzarekin, jarduera ekonomikoaren finantzazioarekin eta kapitalizazio produktiboarekin lotuta zenbait europar funtsen zerga-tratamendua.

## I. TITULUA ZERGEN ALDAKETA

### 1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzea

Lehena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 2. idatz zatiaren b) letra aldatu da; ondorioak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira. Beraz, honela idatzita geratzen da:

“b) Tituluen harpidetzaren deuseztasuna deklaratzan duten epaien kasuan, esan nahiko du haien titularrak ondare irabazi edo galera bat izan duela, eta bata edo bestea epaia irmo bihurtzen den ekitaldiari egotziko zaiola; hain zuzen ere, epaian bere alde onartutako berandutze interesen eta ordaindu behar duen zenbatekoaren artean dagoen alde garbia egotziko da, dagozkion interesak barne, eta ez da bidezko izango arrazoi horregatik dagozkion autolikidazioak zuzentzea.

Tratamendu fiskal horixe bera aplikatuko da epaian deusez deklaratzan denean lehentasunezko partaidetzen edo mendeko zorraren harpidetza.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 33/2013 Foru Arauko 9. artikuluko 29. zenbakia aldatu da eta honela geratu da (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

“29. Askatasun eta eskubide demokratikoak defendatuz eta aldarrikatuz hiltzeagatik eta ezintasunak eragin zituzten lesioak izateagatik jasotzen diren kalte-ordainak, 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak badira (lege horrek gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen ditu, eta haien aldeko neurriak ezartzen ditu).

Era berean, salbuetsita egongo da Bigarren Mundu Gerran ankerkeria ekintzen biktimak izandako gurasoen umezurtzen sufrimenduagatik emandako finantza laguntza; laguntza hori Frantziako Errepublikaren Gobernuak onartu du uztailaren 27ko 2004/751 Dekretuaren bidez.

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira (ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte):

Bat. Edukirik gabe uzten da 4. artikuluko 3. idatz zatia.

Bi. Aldatu egiten da 9. artikuluko 17. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

“17. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, honako betekizun hauek betetzen badira:

1go. Lan horiek Espainian egoitzarik ez daukan enpresa edo erakunde batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea erregelamenduz ezartzen den bezala. Bereziki, gertatzen bada lanak hartzen dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 44.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

2gn. Lanak egin diren lurraldean hau bezalako edo honen antzeko zerga bat aplikatzea, eta lurraldea edo herrialdea zerga paradisua ez izatea. Azken betekizuna betetzat joko da lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin sinatuta badauka nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badauka.

Atzerrian emandako egunetan sortu diren ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, eta urtean 60.100 eurokoa izango da gehienez.

Atzerrian destinaturik dauden zergadunen kasuan, salbuespen hori bateraezina izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiak tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidearekin, atzerrian jasotako errenten zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak soberakinen araubidea aplikatzea aukeratu ahal izango du, salbuespen honen orde.

Atzerriratutako langileak bera enplegatzeko duen enpresaren edo entitatearen nazioz harandiko zerbitzu emate baten barruan atzerriratua izan behar du.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, zergadun bakoitzak autolikidazioa aurkezten duenean argitu behar du salbuespen hau edo soberakinen araubidea aplikatzea nahi duen. Zergaldi baterako egiten den hautapena geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere Zergaren aitortzea nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitu arte edo, bestela, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte.”

Hiru. Aldatu egiten da 9. artikuluan 36. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

“36. Eskola Kiroleko Egitarauaren barnean edo eskola adinean dauden kirolarientzako Arabako Foru Aldundiak baimendutako jardueretan edo Eusko Jaurlaritzaren urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak araututako Euskadiko kirol federazioen jardueretan diharduten monitorea, arbitro, epaile, ordezkari, kirol arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen etekinak, lanbide arteko soldataren mugaraino”.

Lau. Honela idatzita geratzen da 27. artikuluan 1. araua:

“1. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburuak edo profesionalak berak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honetako 70. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalek sinatutako aseguru kontratuen-gatik ordaindutako kopuruak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzazko Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamazortzigarren xedapen gehigarriaren ezarritako betebeharra betetzeko, aipatutako Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren ordeko lanak egiten dituztenean, erregimen berezi horrek hartutako kontingentzien estaldura xedetzat daukan zatian, aipatutako erregimen berezian ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako kontingentzia arrunten gehienezko kuota muga gisa izanik.”

Bost. 42. artikuluari g) letra gehitzen zaio; hona:

“g) Zergadunak akzioak edo partaidetzak eskualdatu baditu eta horiek eskuratzeagatik Foru Arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu badu, baldin eta horien eskualdaketa egiten bada eskuratu zirenetik seigarren eta hamargarren urtearen artean.

Salbuespena ondare irabaziaren ehuneko 50eraino iritsiko da, akzioak edo partaidetzak eskualdatzen badira hamaikagarren eta hamabosgarren urtearen artean.”

Sei. 4. atal berria gehitzen zaio 48. artikuluari, eta honela idatzita geratzen da:

“4. Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarri izango da, ere berean, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10, 11., eta 12. artikuluan jasotako betekizunak betetzen dituzten honako funts europar hauetako partaidetzei: berrikuntza bultzatzeko Europako Funtsak, jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako Funtsak edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako Funtsak.

Zazpi. Idazketa berria ematen zaio 49. artikulua 1. atalari, eta honela idatzita geratu da:

“1. Kargatik kanpo utzi ahal izango dira zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako etekinak. betiere transmisioa lortutako zenbateko osoa ohiko etxebizitza berri bat erosteko inbertitzen bada, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Horretarako, zergadunak bi etxebizitzaren jabetza osoa izan beharko du. Hori ez da indarrrik gabe geratuko jabetza hori titularrak diren beste pertsona batzuekin partekatuz gero”

Zortzi. IV. titulu VI bis kapitulu gehitzen da. Hona beraren edukia:

#### “VI BIS KAPITULUA LANGILE LEKUALDATUENTZAKO ARAUBIDE BEREZIA

56 bis artikulua: Langile lekualdatuentzako araubide berezia.

1. Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz Araban egoitza fiskala eskuratzen duten pertsona fisikoak aukeratu ahalko dute zergak ordaintzea artikuluan honetan ezarritako araubide bereziaren arabera egoitza aldaketa egiten den zergaldian eta hurrengo bost zergaldietan, baldin eta arau bidez honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Espainiako lurraldera lekualdatzea kualifikazio bereziko lanak egiteko, zuzenean eta nagusiki zerikusia dutenak ikerketa eta garapen jarduerekin, zientzia jarduerekin zein jarduera tekniko edo finantzarioekin; jarduera horiek guztiak erregelamenduz definituko dira beharrezko betekizun eta baldintzekin.

b) Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan Espainiako egoiliar izan ez izana.

c) Lekualdatze hori lan kontratu baten ondorio izatea. Baldintza hori betetzat joko da Espainiako enplegatzaile batekin lan harremana (arrunta zein berezia) edo estatutu harremana ezarritako gero, bai eta enplegatzaile batek lekualdaketa agindu eta lekualdaketa gutuna eginez gero ere, baldin eta zergadunak ez badu lortu Espainiako establezimendu iraunkorren bidez lortutakotzat joko litzatekeen errentarik.

d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da, lanen zati bat atzerrian egina izan arren, betiere lan horiei dagozkien ordainsarien batura urte natural bakoitzean jasotako lan kontraprestazio guztien ehuneko 15etik gorakoa ez bada. Ez da kontuan hartuko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearren testu bategineko 13. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran jasotakoaren arabera ordainsari horiek Espainiako lurraldean lortutako errentatzat hartzen diren ala ez. Lan kontratuan ezarritakoa dela eta zergadunak funtzio batzuk bereganatzen baditu Espainiako lurraldetik kanpo dagoen taldeko beste enpresa batean, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aurrean aipatutako muga ehuneko 30 izango da.

Atzerrian egindako lanen ordainsarien zenbatekoa frogatu ezin bada, haiek kalkulatzeko kontuan hartu beharko da langileak benetan zenbat egun eman dituen atzerrian lanean.

e) Lan horiek egitea edo egoitza Espainian duen enpresa edo entitate batentzat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da zerbitzu horien onuradunak honako

hauek direnean: egoitza Espainian duen enpresa edo entitate bat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkorra. Lekualdaketa enpresa talde baten barruan gertatu bada, Merkataritzako Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ondorio hauetarako bakar-bakarrik, beharrezkoa izango da langilea egoitza Espainian duen taldeko enpresak kontratatzea edo Espainiako lurraldera egin beharreko lekualdaketa enplegatzaileak agintzea.

2. Artikulu honetan ezarritako tributazio araubidea hautatzen duten zergadunek foru arau honetan xedatutakoari jarraituz zehaztuko dute zerga zorra, honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko 1. idatz zatian definitutako lan harremanaren ondoriozko etekin osoen ehuneko 15 egongo dira salbuetsita.

b) Aurreko letra aipatzen duen salbuespena aplikatuta, lan pertsonalaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarrien gastutzat hartuko dira foru arauaren 22. artikuluan ezarritakoak nahiz lekualdaketa ondorioz sortutakoa bestelakoak, betiere lanpostu hori betetzean lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugarekin.

Arau bidez zehaztuko diren gastuen aplikazioa baldintzaturik egongo da, edozein kasutan, horien justifikazio dokumentalaren arabera.

Enplegatzaileak b) letra honetan aipatutako gastu gehigarriei aurre egiteko diru kopuruak ordaintzen baditu, horiek ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko, aipatutako lanpostuan lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugaraino.

c) Zergadunaren titulartasuneko ondare elementuen ondorioz sortutako errentak salbuetsita egongo dira, baldin eta errenta horiek antzeko zerga edo zerga baliokide baten arabera ordaindu baditu zergak eta paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurraldea ez bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren hamabosgarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraikiz.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izango foru arau honen 92. artikuluan errenta beretarako aurreikusitako kenkaria aplikatzeko.

d) Aurreko c) letran ezarritakoa lekualdaketa ondorioz araubide berezi hau hautatzen duen eta egoitza fiskala Araban ezartzen duen zergadunaren ezkontideari edo izatezko bikote-kideari ere aplikagarri izango zaio, bai eta familia unitateko kideei ere, baldin eta Espainiako egoiliarrak izan ez badira lurralde espainiarrera lekualdatu aurreko bost urteetan.

Bederatzi. 65. artikuluan b) letra honela idatzita geratzen da:

2b) Zergaldi bakoitzean jarduera ekonomikoetatik eratorritako etekinak, mugarik gabe, bere artean integratzearen eta konpentsatzearen ondoriozko saldoa. Emaizta saldo negatiboa izango balitz, zenbatekoa konpentsatuko da hurrengo hogeita hamar urteetan jarduera ekonomikoetatik eratorritako etekinen saldo positiboarekin, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 55. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Arabako Zerga Foru Arau Orokorren 115. artikuluan 3. atalean xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunak adierazi behar du aurreko paragrafoan aipatzen duen saldo negatiboen konpentsazioa hautatzen duela, konpentsazio hori aplikatu nahi duen ekitaldiaren autolikidazioa aurkeztean. Zergaldi baterako baliatutako aukera ondoren aldatu ahal izango da Zergaren autolikidaziorako borondatezko epea amaitutakoan, betiere aurretiaz zerga-administrazioaren errekerimendurik izan ez bada”.

Hamar. 2.bis atal berri bat gehitzen da eta 79. artikuluan 4 eta 5 atalei idazkera berria ematen zaie. Honela idatzita geratzen dira:

“2.bis. Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 15 handituko da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

24. Ondorengoak gradu bereko aurreko batzuekin batera bizi badira, kenkaria hainbanatuko da eta ondorengo bakoitzari berdin egingo zaio.

Aurreko 2.bis atalean aipatutako kenkaria aplikatzeko eskubidea ondorengo guztiei ez bada-gokie, aurreko paragrafoan xedatutako hainbanaketa egiteko, ondorengo bakoitzak, tokatzen zaion kenkaria kalkulatzeko aldera, kontuan izango du bere egoerari dagokion zenbatekoa, aipatutako 2.bis atalean adierazitakoa aplikagarri zaion ala ez aintzat harturik.

Baldin badira ahaidetasun-gradu ezberdina duten aurrekoekin bizi diren ondorengoak, soilik izango dute kenkari honetarako eskubidea gradurik hurbilena duten aurrekoek; haien artean hainbanatu eta baliatuko dute zati berdinetan. Dagokion zergaldian, aurrekoen artean batek ere ez badu gutxienerako soldata interprofesionala baino handiagoak diren urteroko errentak lortzen, salbuetsiak barne, kenkaria gradu urrunenerako ondorengoei pasatuko da.

5. Erabaki judizial batengatik ondorengoak ekonomikoki mantentzeko beharra izanez gero, kenkaria ondorengoaren mantentze ekonomikoaren ardura duen gurasoaren autolikidazioan egingo da, karga horrek berak bakarrik hartzen badu bere gain, edo erdibana egingo da, kontuan izanik aurreko 4. Atalaren bigarren paragrafoan adierazitakoa, guraso bakoitzaren autolikidazioan, baldin eta ondorengoaren mantentze ekonomikoa bien ardura bada. Atal honek aipatzen dituen kasuetan agintari judizial eskudunek xedatutakoaren arabera jardungo da eta aipatutako mantentze ekonomikoaren benetakotasuna eta eragingarritasuna egiaztatu behar izango da”

Hamaika. 1.bis atal berri bat gehitzen da eta 81. artikulua 4 atalei idazkera berria ematen zaie. Honela idatzita geratzen dira:

“1.bis. Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 15 handituko da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

24. Egoitzetan bizi diren aurrekoak badira, kenkaria aplikatuko zaie zentro horietako egonaldiaren gastuak ordaintzeko diru-kopuruan ordaindu izana faktura bidez egiaztatzen duten ahaiderik hurbilenei. Gastu horiek ordaintzen dituzten gradu bereko ahaideak badaude, kenkaria hainbanatu eta berdin aplikatuko zaie guztiei.

Aurreko 1.bis atalean aipatutako kenkaria aplikatzeko eskubidea ondorengo guztiei ez bada-gokie, aurreko paragrafoan xedatutako hainbanaketa egiteko, ondorengo bakoitzak, tokatzen zaion kenkaria kalkulatzeko aldera, kontuan izango du bere egoerari dagokion zenbatekoa, aipatutako 1.bis.” atalean adierazitakoa aplikagarri zaion ala ez aintzat harturik.”

Hamabi. 86. artikulua 1. atala honela idatzita geratzen da:

“1. Zergaldian ohiko etxebizitzaren alokairuagatik diru-kopuruak ordaintzen dituzten zergadunek, ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaldian ordaindutako zenbatekoei. Kenkariaren muga 1.600 euro izango da.

Dena dela, zergadunak familia ugariaren titularrak badira, aurreko paragrafoan jasotako kenkaria ehuneko 25ekoa izango da, eta urtean 2.000 euroko muga izango du.

Halaber, eta atal honetako lehen paragrafoan adierazitakoa gorabehera, zergadunek 30 urte baino gutxiago izanez gero, aurreko paragrafoan jasotako kenkaria ehuneko 30ekoa izango da, eta kenkariaren urteko muga 2.400 eurokoa izango da.

Horretarako, ordaindu gabeko diru-kopuruetatik kenduko da zergadunak etxebizitza alokatzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, baldin eta zerga hau arautzen duen araudiaren aplikaziotik salbuetsita badaude.”

Hamahiru. 87. artikulua honela idatzita geratzen da:

287. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.

1. Zergadunek ohiko etxebizitzaren erosketan zergaldian inbertitutako diru kopuruaren ehuneko 18ko kenkaria aplikatu ahal izango dute, euren kargura joan diren erosketa gastuak barne.

Halaber, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzeagatik, zergadunen kargura joan diren besteren finantza-akortak sortutako gastuak barne, zergaldian ordaindutako interesen ehuneko 18ko kenkaria aplikatu dezakete.

Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 20koa izango da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

Kenkari hori aplikatzeko orduan, etxebizitza erostea izango da etxebizitza horren jabetza osoa eskuratzea; ez da indarrrik gabe geratuko jabetza hori beste titular batzuekin partekatzeagatik.

2. Urteroko gehienezko kenkaria, aurreko 1. ataleko aurreko bi paragrafoek jasotako kontzeptuak batzeagatik, 1.530 eurokoa izango da.

Aurreko atalaren hirugarren paragrafoak aipatzen duen ehuneko 20ko portzentajea aplikatuz gero, urteroko gehienezko kenkaria, aurreko 1. ataleko aurreko bi paragrafoek jasotako kontzeptuak batzeagatik, 1.836 eurokoa izango da.

3. Aurreko 1. atalak jasotzen dituen kontzeptuengatik zergadun bakoitzak elkarren segidako zergaldietan kendutako zenbatekoen batuketara ezin izango da izan 36.000 euroko zenbateko minoratua, Foru Arau honen 49. Artikuluan jasotakoaren arabera berrinbertsioa egiteagatik salbuetsitako dagoen ondare-irabaziaren zenbatekoaren ehuneko 18a aplikatzearen emaitzan.

4. Zergadunak 30 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariren titularra bada, honako espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. atalean ezarritako portzentajeak ehuneko 23koak izango dira, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

a) Aurreko 2. atalean ezarritako urteko gehienezko kenkaria 1.995 eurokoa izango da, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

Tributazio bateratua hautatzen bada eta pertsona bat baino gehiagok badu aurrez xedatutakoa aplikatzeko eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta besteak gorakoak, aurretik adierazitako portzentajeak eta mugak aplikatuko dira.

Era berean, zergaduna 30 urtetik beherakoa edo familia ugariren titularra bada, eta aurreko 1. atalaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikagarri bada, honako espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. atalean ezarritako portzentajeak ehuneko 25ekoak izango dira, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

a) Aurreko 2. atalean ezarritako urteko gehienezko kenkaria 2.346 eurokoa izango da, salbu eta artikulua honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

Tributazio bateratua hautatzen bada eta pertsona bat baino gehiagok badu aurrez xedatutakoa aplikatzeko eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta besteak gorakoak, ehuneko 25eko portzentajeak eta 2.346 euroko muga aplikatuko dira.

5. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitza eskuratzearen parekotzat joko da:

a) Ohiko etxebizitza birgaitzeko diru-kopuruak.

b) Kreditu-entitateetan gordetako diru-kopuruak, araudiz ezartzen diren formalizazio- eta dispozizio-betekizunak betetzen dituzten kontuetan, eta betiere kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu duten kopuruak erabiltzen badira, kontua irekitzen datatik sei urte pasatu aurretik, ohiko etxebizitza erosteko eta birgaitzeko.

Disposizio-betekizuna ez da bete gabe geratuko kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak kreditu-entitate berebean edo beste batean osorik berriz jartzen badira edo sartzen badira zerga ordaindu baino lehen.

Etxebizitza-kontuaren zenbatekoa ohiko etxebizitza erosteko eta birgaitzeko erabiltzeko betekizuna ez da bete gabe geratuko zergaduna hiltzen baldin bada letra honetako lehen paragrafoak aipatzen duen epea iraungi aurretik.

Letra honek aipatzen dituen kontuetan gordetako diru-kopuruengatik, kenkarirako eskubidea sortu badute, ezin izango dira berriz kenkaririk egin ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.

c) Erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuak.

6. Birgaitzetzat joko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako lanak, lan horiek babes-tutako jarduketa gisa deklaratzeko ebazpena eman denean, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo bestela, abenduaren 12ko 2.066/2008 Errege Dekretua eta berau ordeztan duten pareko arauen arabera babesteko moduko jarduketa deklaratu bada.

7. Erabaki judizial baten ondorioz ezarri bada familiaren etxebizitzagatiko zergadunak aurreko 1. atalak aipatzen dituen diru-kopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan artikuluko honek aipatzen duen kenkaria. Betebehar hori zergadun biei egokituko balitzaiei, kenkaria haien artean hainbanatuko da eta dagokion proportzioan, aurreko 1. eta 2. ataletan ezarritako portzentaje eta mugekin, salbu eta artikuluko honen 4. atalean ezarritako betekizunak betez gero; kasu horretan eskubidea izango dute atal horretan adierazitako portzentajea eta muga.

8. Zerga honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzat joko da hori non zergaduna hiru urtez jarraian bizi den. Hala ere, etxebizitza ohikotzat joko da epe hori pasatu ez arren zergaduna hilez gero edo etxebizitza aldatzeko inguruabarrak izanez gero, hala nola: etxebizitza zergadunaren edo berarekin bizi den aurreko baten, ondorengo baten, senar-emaztearen edo izatezko bikotearen, edo zerga honen kuota osoaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen duen pertsona baten desgaitasunera ez egokitzea, senar-emazteak banatzea edo izatezko bikotea desagertzea, lanagatik lekualdatzea, lehen enplegua edo beste enplegu bat eskuratzea, aipatutako epean etxebizitza ordaintzea galarazten duten inguruabar ekonomikoak, edo pareko bestelako inguruabarrak.

Ohiko etxebizitzak hala izateari utziko dio zergadunak bertan bizitzeari uzten dion unetik aurrera. Salbuespenak gehitu ahal izango zaizkio paragrafo honetan xedatutakoari.

Ez dira ohiko etxebizitzaren parte izango lorategiak, parkeak, igerilekuak edo kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, berez etxebizitza osatzen ez duen edozein elementu, salbu eta etxebizitzarekin batera erregistro-lursail bakarra osatzen badute.

Familia-unitateko kideak hiri-higiezin baten baino gehiagoren jabe direnean, horietako bat baino ez da ohiko etxebizitzatzat joko. Horretarako, halakotzat joko da hori non familiak bizi-interesak, harreman personalak, sozialak eta ekonomikoak dituen.

9. Artikulu honetan jasotako kenkariaren ondorioetarako, aurreko ataletan aipatutako diru-kopuruetatik kenduko dira zergadunak etxebizitza birgaitzeko jaso izan litzakeen diru-laguntzen zenbatekoa, zerga honen araudi erregulatzailearen aplikaziotik salbuetsita badaude”



Hamalau. 88. artikulua 3. atala honela idatzita geratzen da:

“3. Kuota osoaren nahikotasun ezagatik aplikatu gabeko kenkariak, aplikatu ahal izango dira muga berdinekin ondorengo hogeita hamar urteetan bukatzen diren zergaldietako auto-likidazioetan”.

Hamabost. Aldatu egin da 90. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

“90. artikulua. Sortu berri diren edo berritzaileak diren mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik kenkaria.

1. Zergadunek unean uneko zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute enpresa berrien edo oraintsu sortutako enpresen akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik, baldin eta ondoko 3. eta 4. idatz zatietan xedatutakoa betetzen bada. Era berean, kapitalari egindako behin-behineko ekarpenaz gain, enpresaren edo lanbidearen gainean dauzkan ezagutzak ere eman ahalko dizkio inbertsioa jasotzen duen erakundea garatzeko egokiak direnean, zergadunaren eta erakundearen arteko inbertsio hitzarmenean ezartzen denarekin bat etorritik.

Kenkariaren gehieneko oinarria urtean 100.000 eurokoa izango da, eta harpidetutako akzio edo partaidetzen eskuraketa balioak osatuko du. Horrez gain, urtean ken daitekeen gehieneko kopurua ezin izango da zergadunari zerga honetan dagokion likidazio-oinarriaren ehuneko 15 baino handiagoa.

Aurreko mugak gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berak errespetatuz.

2. Aurreko idatz zatian ezarritako kenkaria dagokion epean ordaindutako kopuruaren ehuneko 20koa izango da, baldin eta izenpetutako akzio edo partaidetzak mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain berritzaileei badagozkie.

Ondorio horietarako, enpresa berritzaileetat hartuko dira Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduak, 2014ko ekainaren 17koak, 2. artikuluko 80. idatz zatian ezarritako muga betetzen dutenak. Erregelamendu horrek barne merkatuarekin bateragarri deklaratu dituen zenbait laguntza mota, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Idatz zati honetan ezarritako kasuei dagokienez, kenkariaren gehieneko oinarria 150.000 eurokoa izango da urtean eta urtean gehienez ken daitekeen kopuruak ezingo du zergadunari dagokion zergaren likidazio oinarriaren ehuneko 15 gainditu.

3. Akzioak edo partaidetzak eskuratzen zaizkien entitateek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Sozietate anonimo, erantzukizun mugatuko sozietate, kooperatiba, lan sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko lan sozietate anonimoaren forma izan behar dute, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan Sozietateen eta parte hartuen urriaren 14ko 44/2015 Legearen ezarritako moduan, eta ezin egongo dira negoziatzeko onartuta ezein merkatu antolatuan. Akzioa edo partaidetza edukitzean den urte guztietan bete behar da baldintza hori.

b) Ekonomia jarduera berri bat egin behar dute, eta jarduera horrek bere garapenerako behar dituen baliabide pertsonal eta material guztiak izan behar ditu.

Baldintza hori ez da betetzat joko erakundea ondare-sozietatea bada, edo bat-egiteen, zati-keten, aktibo-ekarpenen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorren, jarduera-adarren ekarpenen, interes ekonomikoko elkarrean edo aldi baterako enpresa-elkarrean bidez sortua bada, edo jarduera ekonomiko berri bat sortzea benetan eta eraginkortasunez berekin ez dakarren beste forma edo eragiketaren bidez.

Artikulu honetako 2. idatz zatian aipatzen diren kasuei ez zaie aplikagarri izango letra honetan xedatutakoa.

c) Entitateak mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina izan behar du, Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan xedatutakoa aplikatu ahal izateko baldintza hauek bete behar dira:

a) Entitateko akzioak edo partaidetzak entitatea eratzen denean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eraketaren ondoko bost urteetan egindako kapital zabalkuntza baten bidez; kasu batean zein bestean, zergadunak bost urte baino gehiagoz eduki behar ditu akzio partaidetzok bere ondarean.

Artikulu honen 2. idatz zatian aipatutako kasuari dagokionez, akzioak edo partaidetzak eskuratu beharko dira eraketa izan eta hurrengo zazpi urteetako tartean; hala ere, epe hori ez da exijigarria izango da, baldin eta erakundeek aurreko bost urteetan urteko operazioen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50etik gorako arriskuko finantzazioaren hasierako inbertsioa behar badute merkatu geografiko berrian edo produktuen merkatu berrian sartzeari begira egindako negozio plan batean oinarrituz.

b) Zergadunak entitatean duen partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, ezin da izan entitatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 25 baino handiagoa, partaidetza hori daukan urte naturalerako egun batean ere ez. Orobat, partaidetza hori kalkulatzeko, zergadunaren partaidetzari batu egingo zaizkio haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak entitate berean daukaten partaidetza, bai eta alboko lerroan edo zuzenekoan bigarren graduko ahaide direnek —odol bidez nahiz ezkontza bidez— daukatena ere.

c) Artikulu honen 1. idatz zatiak aipatzen duen kasuan, ezin dira erakunde baten akzio edo partaidetzak izan, baldin eta alde aurretik betetzen ari zen jarduera bera betetzen bada beste titulartasun baten bidez.

5. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikagarri izango honako kasuetariko batean dauden entitateetan egindako inbertsioei:

a) berreskuratze agindu bati lotuta dauden enpresak badira, Europako Batzordeak alde aurretik hartutako erabaki baten ondoren laguntzaren bat barne merkatuarekin ez-legezkatat edo bateraezintzat hartuz.

b) krisialdian dauden enpresak badira, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduak, 2014ko ekainaren 17koak, bere 2. artikuluko 18. idatz zatian ezarritakoaren arabera; izan ere, erregelamendu horrek barne merkatuarekin bateragarri deklaratzeko zuzenbait laguntza mota, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

c) artikulu honen 1 eta 2. idatz zatiak aipatutako akzio edo partaidetzen jaulkipenaren ondorioz Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduak, 2014ko ekainaren 17koak, bere 21. artikuluko 9. idatz zatian aipatutako arrisku finantzazioaren zenbateko osoa gairitu edo gairituko duten enpresak; izan ere, erregelamendu horrek barne merkatuarekin bateragarri deklaratzeko zuzenbait laguntza mota, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

6. Aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, ordaindu egin beharko da behar ez bezala aplikatutako kenkarien zenbatekoa, hari dagozkion berandutze-interesekin batera. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, oker egindako kenkaria eta ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuota diferentziala batu behar dira. Hala ere, zergadunak bidegabe kendutako kopuru horiek eta beraien berandutze korrituak aurrerago ordaintzeko aukera izango du.

7. Kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa izango da erositako akzioen edo partaidetzen erakundeak egindako ziurtagiria eskuratzeko. Bertan berriaz adierazi behar da eskuraketa gertatu den zergaldian betetzen izan direla aurreko 3. idatz zatian adierazitako baldintzak.

Era berean, artikuluko honen 2. idatz zatian ezarritako kasuan, entitateak beharrezko justifikazio dokumentala aurkeztu beharko du aditu independenteek egiaztatua, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduak, 2014ko ekainaren 17koak, bere 2. artikuluko 80. idatz zatian ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatuz; izan ere, erregelamendu horrek barne merkatuarekin bateragarri deklaratu ditu zenbait laguntza mota, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

8. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, artikuluko honetan ezarritako kenkarietako bat aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da ekitaldiko autolikidazioan zergadunak berariaz adieraztea aplikatu nahi duela.”

Hamasei. 90.bis artikuluko berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

90.bis artikulua. Kenkari jarduera ekonomikoa hasteagatik.

1. Lehenengo aldiz jarduera ekonomikoko bati ekiten dioten 30 urtetik beherako zergadunek, jarduerak garatzeko bitarteko pertsonak eta materialak baditu, 1.000 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute.

Zergadun batzuk badira jarduera ekonomikoko berria lehenengo aldiz hasten dutenak, kenkaria zati berdinetan banatuko da aipatutako jarduera ekonomikoko modu ohikoan, pertsonalean eta zuzenekoan egiten duten zergadun guztien artean, edozein dela ere euren adina. Behin kenkariaren banaketa eginda, aplikatu egingo dute 30 urtetik beherago zergadunek, dagokion zatian.

2. Jarduera ekonomikoko berri bat hasi dela egiaztatze beharrezkoa izango da jarduera ekonomikoko berri modu errealean eta eragingarrian agertzea.

3. Zergadunaren adina zehazteko, zerga ordaindu den datako egoera hartuko da aintzat.

4. Aurreko 1. atalean adierazitako zenbatekoraino kendu gabeko diru-kopurua aplikatu ahal izango da ondorengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan.

5. Kenkari honen aplikazioa baldintzatuta dago jarduera ekonomikoko gutxienez bi urtez baliatzeari.

6. Kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez badira, behar ez bezala jasotako diru-kopuruak itzuli behar izango dira, dagozkion berandutze-interesekin. Itzulketa hori egingo da diru-kopurua ez-betetzea gertatzen den zergaldiari dagokion kuota diferentzialari gehituz. Hala ere, zergadunak behar ez bezala kendutako diru-kopuruak lehenago itzuli ahal izango ditu, dagozkien berandutze-interesekin.

7. Arabako Zerga Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren ondorioetarako, artikuluko honetan jasotako kenkaria egin ahal izateko, zergadunak berariaz aukeratu behar du aplikatzea dagokion ekitaldiaren autolikidazioa aurkeztean.”

Hamazazpi. Aldatu egiten da 97. artikuluko 1. idatz zatiko hirugarren paragrafoa, eta honela idatzita geratu da:

“Zergadunek ezingo dute Zerga batera ordaindu legezko banaketa gertatu edo epai bidez bien artean inolako loturarik ez dagoela adierazi ondoren edo izatezko bikotea azkendu ondoren, nahiz eta elkarrekin bizitzen segitu.”

Hamazortzi. 99. artikuluko 2. atalaren e) letra honela idatzita geratu da:

“e) Foru Arau honetako 87. artikuluko aipatzen duen 36.000 euroko zenbatekoa zergadun bakoitzeko modu indibidualean aplikatuko da. Dena dela, Foru Arau honetako 87. artikuluko 2. eta 4. atalek aipatzen duten urteroko gehieneko kenkaria ezin izango da, hurrenez hurren, 1.530, 1.836, 1.955 eta 2.346 eurokoa baino handiagoa izan, edozein dela ere familia-unitatearen kide-kopurua, salbu eta Foru Arau honetako 98. artikuluko 1. atalak aipatzen dituen familia-unitate baterako aitortpena izanez gero, orduan mugak bikoiztu egingo baitira.”

Hemeretzi. 110. artikulua 1. atala honela idatzita geratzen da:

21. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ordainketa zatikatuak egin beharko dituzte Zerga honen kontura, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan.

Ordainketa zatikatu horiek bi, hiru edo sei hilerik behin egin ahal izango dira, erregelamendu bidez zehazten denaren arabera.”

Hogei. Beste xedapen gehigarri bat gehitu da, hogeita seigarrena. Hona testua:

“Hogeita seigarrena. Sortu berri diren edo berritzaileak diren mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik tratamendua.

Foru Arau honen 42. artikulua g) letran ezarritakoa aplikagarri izango zaie 2018ko urtarrilaren 1etik eskuratutako akzio edo partaidetzetatik eskuratzen diren ondare irabaziei.”

Hogeita bat. 9. artikulua 12. atala honela idatzita geratzen da:

“12. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Tituluaren X. eta VX. Kapitulueta eta VI. Tituluaren I. kapitulueta araututako familia-prestazioak, eta zurtasuneko eta hogeita bi urtetik beherako edo lan guztietarako ezindutako biloba eta anai-arraben aldeko pentsio eta ondasunak, Gizarte Segurantzaren erregimen publikoetatik eta klase pasiboetatik jasotakoak.

Halaber, beren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian integratu gabeko profesionalei prebizio sozialeko mutualitateek aitortutako prestazioak, mutualitate horiek aipatutako Gizarte Segurantzaren erregimen berezien alternatiba gisa jarduten badute, eta kooperatibetako bazkideei borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateek aitortzen dizkieten prestazioak, betiere aurreko paragrafoan Gizarte Segurantzak aurreikusitako egoera berberetarako prestazioak badira. Salbuetsitako zenbatekoaren muga izango da Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuagatik aitortzen duen prestazio maximoaren zenbatekoa. Soberakinak laneko errendimendu gisa tributatu du. Soberakina egongo da Gizarte Segurantzaren prestazioak edo arestian aipatutako mutualitateen edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateen prestazioak azken horien prestazioetan batera gertatuz gero.

Era berean, salbuetsita egongo dira jaiotza, erditze anizkoitz, adopzio, adopzio anizkoitz, kargurako seme-alabak eta zurtasunagatik gainerako prestazio publikoak.

Erkidego autonomoetatik edo tokiko entitateetatik jasotako amatasun eta aitatasun prestazio publikoak ere salbuetsita egongo dira.

Erregelamendu bidez salbuetsizat jo ahal izango dira 12. zenbaki honetan aipatutako prestazioen helburu berbera duten prestazioak.”

## **2. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga aldatzea**

Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, Ondarearen gaineko Zergarenean, honako aldaketa hauek egiten dira (ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte):

Bat. 5. artikuluarik Hamabi idatz zati berria gehitu zaio; hona testua:

“Hamabi. Atzerrian dauden ondasun era eskubideak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. Artikuluak aipatzen duen desplazatutako langileen araubide berezia hautatu duten zergadunen titulartasunekoak.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izango foru arau honen 34. artikuluan ondasun eta eskubide beretarako aurreikusitako kenkaria aplikatzeko.

Aurreko idatz zatian ezarritakoa lekualdaketa ondoriotz araubide berezi hau hautatzen duen eta egoitza fiskala Araban ezartzen duen zergadunaren ezkontideari edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotekideari ere aplikagarri izango zaio, bai eta

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikulua aipatutako familia unitateko kideei ere, baldin eta Espainiako egoiliarak izan ez badira lurralde espainiarra lekualdatu aurreko bost urteetan.”

Bi. 5. artikuluari hamabosgarren idatz zatia gehitu zaio. Hona testua:

“Hamabost. Entitateetako akzio eta partaidetzak, betiere zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu badie, salbu eta horiek eskuratu direnetik hamabost urte baino gehiago igaro badira.”

Hiru. 6. artikuluari Zazpi idatz zati berria gehitzen zaio; hona edukia:

“Zazpi. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, Zergaren kargatik salbuetsiko da, halaber, zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituzten entitateen kapitaleko edo ondareko partaidetzen jabetza osoa, merkatu antolatuetan kotizatu nahiz ez; hori horrela izango da bai zerbitzuen ordainsariak lanaren etekintzat jotzen direnean, bai hartzailearen jarduera ekonomikoen etekintzat jotzen direnean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoaren ondorioetarako.

Horretarako, entitateak artikulu honetako Bi idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta, gainera, zergadunaren errentaren iturri nagusi izan beharko dira berak parte hartzen duen entitateetik lortzen dituen lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinak, alegia, etekin horiek zergadunaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarriaren ehuneko 50 izan beharko dira, gutxienez.

Salbuespena aplikatuko zaie bai zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituen entitatearen kapitaleko edo ondareko partaidetzei, bai sozietate talde bereko gainerako entitateetako; horri dagokionez, sozietate taldeak joko da Merkataritza Kodearen 42. artikuluan hala definitutakoa.

Partaidetutako entitateek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen ez badu, artikulu honetako Sei idatz zatian ezarritako mugak aplikatuko dira.

Baldin eta, ezkontzaren edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoari jarraituz eraturako izatezko bikotearen araubide ekonomikoa aplikatuta, partaidetzak bi ezkontideenak edo izatezko bikoteko bi kideenak badira, idatz zati honetan ezarritako salbuespena biek aplikatu ahalko dute, nahiz eta batek bakarrik bete lehenengo eta bigarren paragrafoetan azaldutako betekizunak.”

Lau. Lehen xedapen iragankorra gehitzen da; hona:

“Lehena. Inbertsioak sortu berri diren edo berritzaileak diren mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan.

Foru Arau honen 5. artikulua hamabosgarren idatz zatian ezarritakoa aplikagarri izango zaie 2018ko urtarrilaren 1etik eskuratutako akzio edo partaidetzei.”

### **3. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga aldatzea**

Lehenengoa. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergarenean, honako aldaketa hauek egiten dira (2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak):

Bat. 25 bis artikulua gehitzen da. Hona beraren edukia:

“25 bis artikulua. Finantza gastuen kengarritasunaren muga.

1. Finantza gastu garbiak kengarriak izango dira ekitaldiko mozkin operatiboaren ehuneko 30eko mugaraino.

Ondorio horietarako, finantza gastu garbia izango da finantza gastuen soberakina, zergaldian sortutako kapital propioak hirugarrenei lagatzen diren diru sarreraren aldean, foru arau honen 31. artikuluko 1. idatz zatiko g) eta k) letretan aipatzen diren gastuak kanpoan utzita.

Mozkin operatiboa zehazteko, ekitaldiko galera eta irabazien kontuaren ustiapen emaitza hartuko da kontuan, foru arau honen 15eko artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den araudiari jarraituz zehaztua, ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioako diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena, ibilgetuaren narriadura eta ibilgetuaren besterentzeen emaitza kenduta, eta ondare tresnetako partaidetzen bidezko diru sarrera finantzarioak gehituta, betiere dibidenduak edo entitateen mozkinetako partaidetzak badira eta entitateotako zuzeneko zein zeharkako partaidetza gutxienez ehuneko bostekoa bada, edo, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute, ehuneko hirukoa. Inoiz ere ez dira mozkin operatiboaren parte izango, ordea, ez diru sarrerak ez gastuak, zerga honen zerga oinarrian sartzen ez badira.

Nolanahi ere, kengarriak izango dira zergaldiko finantza gastu garbiak hiru milioi euroko zenbatekoan.

Kendu ez diren finantza gastu garbiak hurrengo zergaldietan kendu ahalko dira, kasuan kasuko zergaldikoekin batera, idatz zati honetan ezarritako muga gainditu gabe.

2. Zergaldiko finantza gastu garbiak artikuluko 1. idatz zatian ezarritako mugara heltzen ez badira, muga horren eta zergaldiko finantza gastu garbien arteko aldea artikuluko 1. idatz zatian ezarritako mugara batuko da, hurrengo ondoz ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako finantza gastu garbien kenketari dagokionez, alde hori kendu arte.

3. Lege honen VI. tituluko III. Kapituluaren ezarritako arabera tributatzen duten entitateetako bazkideei egotzitako finantza gastu garbiak kontuan hartuko dituzte bazkideok, artikuluko honetan ezarritako mugaren aplikazioari dagokionez.

4. Entitatearen zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, artikuluko 1. idatz zatiko laugarren paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa honako biderketa honen emaitza izango da: hiru milioi euro bider zergaldiaren iraupenaren eta urtearen arteko proportzioa.

5. Artikuluko honetan ezarritakoaren ondorioetarako, edozein motatako entitateen kapital edo funts propioetako partaidetzak eskuratzeko egindako zorren ondoriozko finantza gastuengatik kenkaria aplikatuko da, eta kenkari horrek eskurapena egin duen entitatearen beraren mozkin operatiboaren ehuneko 30eko muga gehigarria izango du; ez da mozkin operatibo horretan sartuko eskurapenaren ondoko lau urteetan harekin bat egiten duen edozein entitateri dagokiona, bat egite horrek foru arau honen VI. tituluko VII. kapituluaren aurreikusitako zerga araubide berezia aplikatzen ez badu. Finantza gastu horiek kontuan hartuko dira, halaber, artikuluko 1. idatz zatian aipatutako muga zehazterakoan.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko finantza gastu ez-kengarriak hurrengo zergaldietan kengarriak izango dira, idatz zati honetan eta artikuluko 1. idatz zatian ezarritako mugaraino.

Idatz zati honetan ezarritako muga ez da aplikatuko entitateen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzak eskuratzen diren zergaldian, baldin eta eskurapena zorraren bidez finantzatzen bada, gehienez ere, eskurapen prezioaren ehuneko 70eraino. Halaber, ez da muga hori aplikatuko hurrengo zergaldietan, baldin eta zor horren zenbatekoa txikitu egiten bada, eskurapenaren unetik, hurrengo zortzi urteetako bakoitzari dagokion zati proportzionala kenduz gutxienez ere, harik eta zorra eskurapen prezioaren ehuneko 30 izan arte.

6. Honakoei ez zaie aplikagarri izango artikuluko honetan ezarritako mugaketa araubidea:

a) Ez zaie aplikatuko kreditu eta aseguru entitateei.

Horri dagokionez, kreditu entitateen tratamendu bera jasoko dute boto eskubide guztiak, zuzenean nahiz zeharka, halakoen eskuetan dituzten entitateek, baldin eta halako entitateen erregulazio kapitala eta finantzaketa indartzeko finantza tresnak jaulki eta merkatuan kokatzea badute jarduera bakarra.

Tratamendu berbera emango zaie hipotekak titulu bihurtzeko funtsei, zeinak uztailaren 7ko 19/1992 Legeak, higiezinetako inbertsio sozietate eta funtsei eta hipotekak titulu bihurtzeko funtsei buruzkoak, arautzen baititu, eta aktiboak titulu bihurtzeko funtsei, apirilaren 14ko 3/1994 Legearen bosgarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian aipatzen diren horiei; lege horren bidez kredituaren arloko Espainiako legeria Bankuen Koordinaziorako Bigarren Zuzentarauari egokitu zaio eta finantza sistemari dagozkion beste aldaketa batzuk egin dira.

b) Ez zaie aplikatuko Merkataritza Kodearen 42. artikuluko baldintzetan sozietate talde bateko kide ez diren, foru arau honen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera beste entitate batzuekin lotuta ez dauden eta atzerrian establezimendu iraunkorrik ez duten entitateei.

c) Ez da aplikatuko entitatea azkentzen den zergaldian, salbu eta azkentze hori berregituratze eragiketa baten ondorio denean.

7. Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako sozietate talde bateko kide diren zergadunek artikuluko honetan xedatutakoaren aplikazioa saihestu ahal izango dute, euren funts propioen eta euren aktiboen guttizkoaren arteko arrazoia taldearen arrazoi parekoaren berdina edo hura baino handiagoa dela frogatzen badute, eta, betiere, aktibo eta pasiboen gutzizkoa baloratzeko erabiltzen duten metodoa Urteko kontu bateratuak formulatzeko Arauei jarraituz egindako finantza egoera bateratuei aplikatutakoa bera bada (irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak onartu zituen Urteko kontu bateratuak formulatzeko Arauak).

Aurrekoari dagokionez, zergadunaren funts propioen eta beraren aktiboen guttizkoaren arteko arrazoia taldearen arrazoi parekoaren berdintzat jo ahal izango da baldin eta zergadunaren funts propioen eta beraren aktiboen guttizkoaren arteko arrazoia taldearena baino gehienez ere ehuneko bi puntu txikiagoa bada.

8. Artikulu honetako aurreko idatz zatian aipatutako zergadunek euren finantza gastu garbien kengarritasunari artikuluko honetako 1. idatz zatian ezarritako muga baino goragokoa aplikatzeko proposamena aurkeztu ahal izango diote Zerga Administrazioari; muga horrek oinarri izango du taldearen hirugarrenetikiko finantza gastu garbiak sozietate taldearen mozkin operatiboarekin alderatuta ateratzen den koefizientea.

Halakoetan, artikuluko honetako 1. idatz zatian aipatutako muga kalkulatzeko, aurreko idatz zatian aipatutako koefizientea aplikatuko zaio zergadunaren mozkin operatiboari.

Idatz zati honetan aipatutako proposamenak foru arau honetako 45. artikuluko 3. idatz zatitik 5.era bitartekoetan azaltzen diren prozedura arauen pean egongo dira.

Bi. 31. artikuluko 1. idatz zatiari k) letra berria gehitzen zaio; hona:

“k) Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketei dagozkien gastuak, baldin eta, haien kalifikazio fiskal desberdinaren ondorioz, ez badute diru sarrerarik sortzen, edo sortzen duten diru sarrera salbuetsita badago, edo ehuneko 10etik beherako karga nominala badu.”

Hiru. 32. artikuluen 4. atala honela idatzita geratzen da:

“4. Foru arau honetako 13. artikuluko 1. zenbakian aipatutako mikroenpresek euren zerga-oinarritik kendu ahal izango dute euren zerga-oinarri positiboaren ehuneko 15, zenbaki honetan ezarritakoa aplikatu baino lehen, Foru Arauaren edo Foru Arau honen bigarren xedapen gehigarriak edo 48. artikuluko aipatzen dituen errenta positiboak jaso baino lehen, beraien VI. Tituluaren III. Kapituluaren jasotakotik eratortzen direnak baino lehen, eta Foru Arau honen 55. artikuluan bere dimentsioagatik dituen zailtasunengatik zerga-kontentsazioaren kontzeptuan jasotako zerga-oinarri negatiboaren kontentsazioa baino lehen.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko mikroenpresa hori Foru Arau honen VI. Tituluaren III. Kapituluaren aurreikusitako erregimen bereziaren arabera tributatzen duen interesen ekonomikoko talde espainiar edo europarra edo aldi baterako enpresa-batasuna bada.

Atal honetan xedatutakoa aplikatzea ez da bateragarria izango Titulu honen V. Kapituluaren ezarritako zuzenketak aplikatzearekin.”

Lau. Aldatu egiten da 33. artikuluko 3. idatz zatiko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

“a) Sozietateen gaineko Zergan nahiz horren berdina edo parekoa den beste zerga batean ehuneko 10etik beherako karga tasa nominalarekin tributatu duten entitateek banatutakoak.”

Bost. Aldatu egiten da 34. artikuluko 7. idatz zatia, eta honela idatzita geratzen da:

“7. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko honako errenta hauei:

a) Sozietateen gaineko Zergan nahiz horren berdina edo parekoa den beste zerga batean ehuneko 10etik beherako karga tasa nominalarekin tributatu duten entitateetako partaidetzen eskualdaketa dela eta agerian jartzen diren errentei.

Entitate partaidetuari aplikatu beharreko karga tasa, partaidetza edukitzen den ekitaldietako batean edo batzuetan, desberdina bada, artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da, letra honetan ezarritako gutxieneko tributazioaren baldintza zein ekitalditan betetzen den eta zeinetan ez kontuan hartuta.

b) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare sozietateetako partaidetzen eskualdaketa dela eta agerian jartzen diren errentei, salbu eta partaidetza eduki den bitartean sortutako mozkin banatu gabeen gehikuntza garbiari dagokionez, eta entitate partaidetua ondare sozietatea izan ez den ekitaldietan.

c) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare sozietateek lortutako errentei, entitateen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzaren erakusgarri diren baloreen eskualdaketatik sortutako errentak badira.”

Sei. Azken paragrafo berri bat gehitzen zaio 35. artikuluko 1. idatz zatiari. Hona testua:

“Ez da aplikatuko artikuluko honetan xedatutakoa, establezimendu iraunkorrek sortzen dituen eta hura kokatuta dagoen Estatuan tributaziotik salbuetsita dauden errentei dagokienez eta Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zerga batean ehuneko 10etik beherako karga tasa nominalarekin tributatu duten errentei dagokienez.”

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 36. artikuluko 1. idatz zatia:

“1. Nahi izanez gero, zerga-oinarrian sartu gabe utz daitezke ustiapen ekonomikoei loturiko ibilgetu material edo ez materialeko edo higiezinaren inbertsioetako ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketatik lortutako errentak, foru arau honetako 40.9 artikuluan araututako moneta-balio-galera aplikatuz zuzendu ondoren. Orobat egin daiteke elementu horietatik datozen errentekin, eskualdatu aurretik salmentarako mantendutako aktibo ez-korronte gisa sailkatuta bazeuden.

Zerga-oinarrian ez sartzeko aukeraz baliatu ahal izateko, eskualdaketa bidez lortutako zenbatekoa aurrean aipatutako ondare-elementuetako batean inbertitu behar da, ondare-elementu hori eman edo eskura jarri den egunaren aurreko urtetik eta hurrengo hiru urteen arteko epean.

Berrinbertsioari dagokionez, ez dira kontuan hartuko berrinbertsioa egingo den aktiboetako lortutako eraiste edo kentzeen ondorioz hartuko diren betebeharreko dagozkien kostuak, kostuok berrinbertsioa balioesteko kontuan har daitezkeen arren.

Berrinbertsioa gauzatzen den ondare-elementua baliagarri jartzen den egunean egintzat joko da.

Finantza-errentamenduko kontratuen helburu diren ondare-elementuak badira, berrinbertsioa kontratuaren datan egin dela joko da, ondare-elementu bakoitzaren eskurako balioaren zenbateko berarekin. Berrinbertsioaren ondorioak erosketa aukera gauzatzeak baldintzatuko ditu, baldintza suntsiarazle gisa.”



Zortzi. 37. artikuluko 1. idatz zatiko azken bi paragrafoak aldatu dira eta honela geratu dira:

“Aktiboak erabili eta ustiatzeko eskubideen lagapenetik datozen ekitaldiko sarreren eta foru arau honen 20. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoa aplikatzearen ondotik kendutako zenbatekoen arteko desberdintasun positiboak eta lagatako aktiboarekin zuzenean lotutako ekitaldiko gastu horiek osatuko dituzte aurreko bi paragrafoek hizpide dituzten errentak.

Artikulu honetan araututako murrizketarako eskubidea ematen dutenak honako errentak izango dira: patenteak, erabilgarritasun modeloak, medikamentu eta produktu fitosanitarioak babesteko egiaztagiri osagarriak edo ikerketa eta garapen proiektuen ondorioz lortutako software aurreratu eta erregistratua erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidearen lagapenetik eratorritako errentak, alegia.

Murrizketa horretarako eskubidea emango ez dutenak honako errenta hauek izango dira: markak, literatura lanak, lan artistikoak edo zientifikoak (film zinematografikoak barne), laga daitezkeen eskubide pertsonalak (adibidez irudi eskubideak, ekipo industrialekoak, merkataritzakoak edo zientifikoak), planoak, formulak edo prozedura sekretuak, industria, merkataritza edo zientzia esperientziari buruzko informazioen gaineko eskubideak, marrazkiak edo modeloak, aurreko paragrafoan aipatutakoez bestaldeko programa informatikoak edo aipatutakoez bestaldeko eskubideak edo aktiboak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidearen lagapenetik eratorritako errentak, alegia.”

Bederatzi. 12. atal berri bat gehitu zaio 40. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

“12. Konkurtso-prozeduren esparruan gertatutako ekoizpen-unitateen transmisioen kasuan, zeinetan aktibo identifikagarrien balioa ken bereganatutako pasiboen balioa negoziaren konbinazioaren kostua baino handiagoa baita, eskuratzailerak batzuk eta besteak baloratu beharko diru, ondorio fiskaletarako, eta banatu beharko du transakzioaren kostua denen artean arrazoizko balio erlatiboen arabera.”

Hamar. Aldatu egiten da 41. artikuluko 2. idatz zatia; hona testu berria:

“2. Egoitza Europar Batasuneko beste estatu batera aldatzen denean edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak Europar Batasuneko beste estatu batera eskualdatzen direnean, ordea, zergadunak aukera izango du aurreko idatz zatian xedatutakoaren aplikazioari dagokion kuotaren ordainketa geroratzeko, hurrengo eta segidako bost urteetan amaitzen diren zergaldietan zehar zatikatuz, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Zergadunak zerrenda bat aurkeztu behar du, zerga honengatik aurkeztu behar duen azken autolikidazioarekin batera edo aurreko 1. idatz zatiko c) letran azaldutako inguruabarrak gertatzen diren zergaldikoarekin batera. Aurreko 1. idatz zatian xedatutakoa aplikatu behar zaien ondare elementuak agertuko dira banan-banan zerrenda horretan, eta elementu bakoitzaren kontabilitate balioa, eta bakoitzaren merkatu balio normalaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia, bai eta kuota likidoan elementu bakoitzari dagokion zatiaren zenbatekoa ere.

b) Kreditu erakunde batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioaren bidez edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bidez kuota kobratuko dela bermatu behar da, hain zuzen ere zergadunak idatz zati honetan ezarri moduan geroratu nahi duen ordainketaren zenbatekoa, baldin eta ez ordaintzeko arrisku frogagarria eta egiazkoa badago.

Idatz zati honetan aipatutako kasuetan, zergadunak, idatz zati honetako lehen paragrafoan aipatutako zergaldietako bakoitzeko zerga honen autolikidazioarekin batera, kuota geroratuaren bostena sartuko du, gehi dagozkion berandutze korrituak.

Zergadunak eskatu ahal izango du murriztu egin dadila b) letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz eman beharreko bermea, egindako ordainketak kuota geroratu osoan hartzen duen proportzio berean.

Aurreko idatz zatietan xedatutakoa gorabehera, gainerako kuota geroratu osoa eskatu ahal izango da baldin eta ondare elementuak hirugarren bati eskualdatu bazaizkio, Europar Batasunetik kanpo dagoen establezimendu iraunkor bati lotu bazaizkio edo entitatearen balantzean baja eman bazaie.

Horrelako kasuetan, zergadunak, aurreko idatz zatian aipatutako inguruabarrak gertatu diren zergaldiko zerga honen autolikidazioarekin batera, gainerako kuota geroratuen zenbateko hau sartu beharko du: aipatutako inguruabarrak zergaldi horretan gertatu zaizkien ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikagarria izango da, halaber, egoitza Europako Esparru Ekonomikoko beste Estatu batera aldatzen denean edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati lotutako elementuak bertara transferitzen direnean, baldin eta Estatu horrek Espainiako Erresumarekin edo Europar Batasunarekin akordioa egin badu zerga kredituen kobrantzan elkarri laguntzeko, eta akordio hori Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan aurreikusitako elkarrekiko laguntzaren parekoa bada (Zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruzko Zuzentaraia)."

Hamaika. Bigarren paragrafo berri bat gehitzen zaio 47. artikuluko 3. idatz zatiari. Hona testua:

"Artikulu honetan xedatutakoa ezingo zaie aplikatu, halaber, finantza gastuen kengarritasunaren muga, foru arau honen 25 bis artikuluan ezarritakoa, aplikatzen zaien zergadunei."

Hamabi. Aldatu egiten dira 48. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra eta 7. idatz zatia, eta honela idatzita geratzen dira:

"b) Espainian egoitzarik ez daukan erakunde batek ordaindutako kopurua (zerga hau bezalakoa edo antzekoa den karga dela eta 2. idatz zatian ezarritako errenta motetako errenta bati egotzi beharrekoa) zerga honen arauari jarraikiz erakunde ez-egoiliar horri zegokiokoen zenbatekoaren eta benetan ordaindu duenaren arteko kendura baino gutxiago izatea."

"7. Espainiako lurraldeko egoiliar ez den erakundeak bere ekitaldi soziala amaitzen den egunari dagokion zergaldiko zerga oinarrian sartu behar ditu errentak. Hori dela eta, ekitaldi sozialaren iraupena ezin da izan hamabi hilabete baino luzeagoa."

Hamahiru. Honela idatzita geratzen da 55. artikuluko 1. idatz zatia:

"1. Likidatu edo autolikidatu diren zerga oinarri negatiboak konpentsatu ahalko dira hurrengo hogeita hamar urtetan bukatzen diren zergaldien errenta positiboekin, betiere konpentsazio horren alde aurretiko zerga oinarri positiboaren ehuneko 50eko mugarekin. Foru Arau honen 13. artikuluan definitutako mikroenpresa eta enpresa txikiei begira, muga ehuneko 70koa izango da.

Zerga oinarri negatiboaren konpentsazioaren muga ez zaie aplikatuko zergadunaren hartzekodunekiko akordioen ondoriozko kita edo itxaronaldiei dagozkien errenten zenbatekoari.

Idatz zati honetan ezarritako mugak ez dira aplikatuko entitatea azkentzen den zergaldian, salbu eta azkentze hori berregituratze eragiketa baten ondorio bada eta eragiketa horri aplikagarria bazaio foru arau honen VI. tituluko VII. kapituluan ezarritako zerga araubidea.

Oraintsu sortutako entitateek zerga oinarri positiboa duten lehen zergalditik aurrera zenbatu ahal izango dute idatz zati honetan aipatzen den konpentsazio aldia. Arau hori bera aplikatuko zaie ordaindu beharreko autobide, tunel eta bide berrien kontzesioa lortzen duten sozietateek horien ustiapenaren ondorioz dituzten zerga oinarri negatiboek ere."

Hamalau. 56. artikuluko 1. zenbakia honela idatzita geratu da:

"1. Karga-tasa orokorra hauxe izango da:

a) Oro har, ehuneko 26

b) Foru Arau honetako 13. artikuluan definitutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, ehuneko 22.

c) Ehuneko 28ko karga-tasa jasango dute kreditu-entitateek eta foru arau honen VI. tituluko VI. kapituluan ezarritako arauen arabera tributatzen duen talde bateko kide diren entitateek, taldeko kide diren entitateetako bat kreditu-entitatea denean.”

Hamabost. 56. artikulua 3. eta 6. atalak honela idatzita geratzen dira:

“3. Honako hauek ehuneko 20ko karga-tasa jasango dute:

a) Foru arau honetako 12.2 artikuluan aipatzen diren entitateek, alegia, salbuespen partziala dutenek.

b) Aseguru orokorretako mutuek eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek, hurrengo 5. zenbakiko karga-tasa aplikatzen ez bazaie.

c) Elkarrekiko berme-sozietateek eta birfidantzamenduko sozietateek, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta badaude.

d) Balore-burtsaren sozietate artezkariak eta Balore-Merkatuari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera Bilboko Balore Burtsako legezko kide diren balore- eta burtsa-sozietateek eta –agentziek”.

“6. 33ko tasaren arabera tributatuko dute Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 1998ko urriaren 7ko 34/1998 Legean ezarritakoaren arabera hidrokarburoen hobiak eta lurpeko bilguneak esploratu, ikertu eta ustiatzen dituzten entitateek.

Karga-tasa orokorraren pean jarriko dira, berriz, birfintzeari loturik dauden jarduerak eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa, ustiapen, garraio, biltegiatze, arazketa eta ateratako hidrokarburoen salmenta ez diren gainerako jarduera guztiak, bai eta hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak lur azpian biltegiatzeko jarduera ere.

Hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak biltegiatzen soilik aritzen diren entitateei ezin zaie aplikatu foru arau honetako 20.3 artikuluan, 29. artikuluan eta 55.4 artikuluan xedatutakoa, eta artikulua honetako 1. zenbakian ezarritako tasa orokorraren arabera tributatuko dute.”

Hamasei. 59. artikulua honela idatzita geratu da:

“59. artikulua. Benetako kuota eta gutxienerako tributazioa.

1. Benetako kuota hau da: kuota likidoari titulu honetako III. Kapituluaren ezarritako kenkariaren zenbatekoa gutxituta geratzen den zenbatekoa.

2. Betetako kuota ezin da inoiz negatiboa izan.

3. Zerga-oinarri positiboak eduki dituzten zergadunen benetako kuota lortzeko kenkariak aplikatzen bazaizkio kuota likidoari (foru arau honetako 62-64. artikuluetako kenkariak izan ezik), eragiketa horretako ateratzen den zenbatekoa ezin da izan zerga-oinarriaren ehuneko bost baino gutxiago, oro har. Foru Arau honen 56. artikulua 1. atalaren c) letrak aipatzen dituen entitateen kasuan, portzentajea ehuneko 13koa izango da.

Hala ere, kuota likidoa kenkariak aplikatuta murriztearen ondorioz lortzen den benetako kuota ezin da izan honako kasu hauetako ehuneko baino txikiagoa:

a) Enpresa txikiak edo mikroenpresak: zerga-oinarriaren ehuneko 13.

b) Foru arau honetako 56.3 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren ehuneko 10,75.

c) Foru arau honetako 56.6 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren ehuneko 18,25

4. Entitateak aurreko ekitaldiko lan-kontratuko plantilla mugagabearen batez besteko kopurua mantentzen badu edo kopuru hori gehitzen badu, aurreko zenbakiko ehunekoak barik honako hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren: ehuneko 13, ehuneko 11, ehuneko 11, ehuneko 8,75 eta ehuneko 16,25.

5. Aurreko bi zenbakietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako 56. artikuluko 2., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako karga-tasen arabera tributatzen duten entitateei”

Hamazazpi. Aldatu egiten da 60. artikuluko 8. zenbakia, eta honela idatzita geratu da:

“8. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko artikuluko honetako 5. zenbakian ezarritakoaren arabera kentzen diren zenbatekoei”

Hamazortzi. Honela idatzita geratzen da 61. artikuluko 3. idatz zatiko d) letra:

“d) Inbertsioa aplikatzen den aktiboen gutzirako zenbatekoa, ekitaldi bakoitzean, ondoko baturaren ehuneko 10 baino gehiago izan behar da: ibilgetu materialeko aktibo finkoko aurreko kontabilitateko balio garbiak, higiezinetakoa inbertsioak, aplikazio informatikoetako ibilgetu ukiezina, eta artikuluko honetako 1. idatz zatiko d) letran aipatzen diren inbertsioak; baturatik kontabilizatutako amortizazioak eta narriaduraren ondoriozko galerak kendu behar dira. Edo bestela bost miloi eurotik gorakoa izan behar da.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa egingo den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azken egunari dagokion balantzeari hartuko da kontuan, baina inbertsio bat dagoeneko martxan badago, ez da konputatuko inbertsioaren xede den aktibo ez-korrante horri dagokion balioa.

Betekizun hau betetzen den argitzeko artikuluko honetako 1. eta 2. idatz zatietan aipatzen diren aktiboetan egindako inbertsioak baizik ez dira zenbatuko, idatz zati honetako aurreko letretako betekizunak betez gero; beraz, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera pizgarria izan dezaketen inbertsioak soilik konputatu behar dira.”

Hemeretzi. Honela idatzita geratzen da 66. artikulua:

“66. artikulua. Enplegua sortzeagatikoen kenkaria.

1. Zergaldian zehar lan kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko, hurrengo paragrafoan ezarritako zenbatekoa kendu ahal izango da kuota likidotik, baldin eta pertsona horren soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino ehuneko 70 handiagoa bada, gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria, kontratatutako pertsona bakoitzeko, urteko soldata gordinaren ehuneko 25 izango da, eta ez du gaindituko 5.000 euroko zenbatekoa.

Kontratutako pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo batekoa denean, erregelamenduz zehazten den moduan, kenkariaren zenbatekoa goian azaldutakoaren arabera kalkulatzeko dena halako bi izango da.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldiaren arabera izango da, lanaldi osoari dagokionez.

2. Aurreko idatz zatian xedatutako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez murriztea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan eta kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izatea.

Gainera, aurreko idatz zatian aipatzen den langile kopurua (azken ekitaldian lan kontratu mugagabea duten langileena) kontratazioak egin aurreko zergaldiko arautegikoa izan behar da, eta dagoen hazkundea, gutxienez, kenkarirako eskubidea eman duten kontratuen kopurua bestekoa izan behar da.

Zenbaki honetan xedatutakoa bete behar da bai lan kontratu mugagabea duten langileei dagokienez, bai aurreko 1. zenbakiko bi langile taldeei dagokienez, arautegi bidez ezartzen diren baldintzetan.

Lan harremanak eteten direnean edo lanaldia murrizten denean (Langileen Estatutuko 47. artikulua), zenbaki honetan ezarritako betekizunak ez dira bete beharko harik eta lan harremanen etetea edo lanaldiaren murrizketak ondorioak sortzeari utzi arte.

Halaber, lan kontratu mugagabea duten langileen murrizketa ez da konputatuko enpresak langile kopuru bera kontratatzen badu kontratu bakoitza azkendu denetik bi hilabete pasatu baino lehen. Kontratu berriei hurrengo idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Beharrezkoa izango da, gainera, kontratazioa egiten den zergaldia amaitu ondoko hiru urteetan amaitzen diren zergaldi guztietan, kenkaria sortu duen langileari egotzi beharreko soldata bere horretan mantentzea edo igotzea.

3. Artikulu honetako 2. zenbakian ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioan sartu beharko du kenkariaren ondoriozko kuota, bai eta horri guztiari dagozkion berandutze-interesak ere.

Lan kontratu mugagabea duten langileen kopurua mantentzeaz ezarritako guztia betetzen ez bada, zergadunak hauxe gehitu behar dio inguruabar hori gertatzen den zergaldiko kuotari: mantendu ez den langile kopuruari (edo zatikiari) dagokion kenkariaren zati proportzionala, berandutze interesak erantsita.

Langileen kopurua kalkulatzeko, lanaldi partzialean ari diren lan kontratu mugagabedun langileak lanaldiaren araberako proportzioa aplikatuz konputatu behar dira, lanaldi osoari dagokionez.

Kenkarirako eskubidea sortzen duen kontratua formalizatu den zergaldia bukatu ondoko hiru urteetan hasten diren zergaldietan zergadunak lan kontratu berria egiten badu, eta kontratu horrek kenkari eskubidea sortzeko betekizunak betetzen baditu eta beharrezkoa bada aurreko ekitaldi batean sortutako kenkaria aplikatzeko eskubidea finkatzeko, kontratuaren zati batek ez du sortuko kenkarirako eskubiderik, hain zuzen ere eskubidea finkatzeko behar izan den zatiak.

4. Sozietateak eta banakako enpresak bat egin, banandu eta eraldatuz sozietate berriak sortzeko eragiketak gauzatzeak ez du ekarriko, berez, artikulu honetan jasotzen den kenkaria aplikatzerik.

5. Foru arau honetako 42.3 artikuluan ezarritako kasuetan, kenkari hau aplikatzeko kontuan hartu beharko da entitate lotuen egoera bateratua.

6. Lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeak dira Euskal Autonomia Erki-degoko erakunde eskudunek onartutako araudian ezartzen direnak”

Hogei. 67. artikuluko 1, 2 eta 7 zenbakiak honela idatzita geratu dira:

“ Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarien batura ezin da izan kuota likidoaren ehuneko 35 baino gehiago, aurreko 62-64 bitarteko artikuluetan ezarritako kenkariak aparte utzita (kenkari horien muga kuota likidoaren ehuneko 70 da).

Bi muga horietako bakoitzak eragindako kenkariak aldi berean gertatzen direnean, ehuneko 70ko muga aplikatuko da ehuneko 35eko kenkarien baterako muga aplikatzearen emaitza den kuota likidoaren soberakinaren gainean”

“2. Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu daitezke, baina muga berak errespetatuz.

Kapitulu honetako kenkariak aplikatzeko kontuan hartzen diren epeen konputua atzeratu egin daiteke, preskripzio-epareen barruan emaitza positiboak gertatzen diren lehen ekitaldira arte, hain zuzen”.

7. Kuota likidoko kenkariak aplikatzerakoan honako hurrenkera hau jarraitu behar da.

Lehenik aplikatuko dira muga ezarri behar zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak. Kenkari horiei artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (ehuneko 35) aplikatuko zaie.

b) Bigarrenik, artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (ehuneko 35) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak.

c) Hirugarrenik aplikatuko dira muga ezarri behar ez zaien aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak. Kenkari horiei artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (ehuneko 70) aplikatuko zaie. Halaber, aplikatuko da 1. atal horren bigarren paragrafoan ezarritakoa.

d) Laugarrenik, artikuluko honetako aurreko 1. zenbakian ezarritako muga (ehuneko 70) aplikatu behar zaien ekitaldiko kenkariak. Halaber, aplikatuko da 1. atal horren bigarren paragrafoan ezarritakoa”.

Hogeita bat. 68. artikuluko 1. zenbakia honela idatzita geratu da:

“1. Benetako kuotatik kendu ahal izango dira hauek:

a) Atxikipenak, salbu eta foru arau honetako 39.3 artikuluan xedaturikoa aplikatuta zerga-oinarriaren sartzen ez diren errentei dagozkienak.

b) Konturako sarrerak.

c) Ordainketa zatikatuak”.

Hogeita bi. Aldatu egiten dira 73. artikuluko 1. zenbakiko b) letra eta 3. zenbakiko azken paragrafoa, eta honela geratu dira idatzita:

“b) Espainiako lurraldean bizi diren bazkideei hauek egotziko zaizkie:

a’) Entitate hauetan zergaldian kenkari gisa aplikatu ez diren gastu finantzario garbiak, foru arau honetako 25.bis artikulua araberaren betiere. Entitate horietako bazkideei egotzen zaizkien gastu finantzario garbiak ezingo ditu kenkari gisa aplikatu entitateak.

b’) Entitate horiek lortutako zerga-oinarri positibo zein negatiboak. Bazkideei egotzen zaizkien zerga-oinarri negatiboak ezingo ditu konpentsatu zerga-oinarriok eragin zituen entitateak.

c’) Entitateak kuotan egin ditzakeen kenkariak, hartarako eskubidea duelako. Kenkariaren oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, eta kuota gutxituko dute, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz.

d’) Entitateari dagozkion atxikipenak eta konturako diru-sarrerak.

Nolanahi ere, bazkideek ekonomia-intereseko elkartzeei egindako ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar direnean, kontabilitate-irizpideen arabera, bai eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan, finantza-gastu garbien, zerga-oinarri negatiboaren zein kuotako kenkariaren egoketak ezin du gainditu, kuotari dagokionez, bazkideak elkartzearen kapitalari ordaindutako ekarpenen zenbatekoa bider bat eginez ateratzen zenbatekoa. Soberakina ezin zaie inola ere egotzi bazkideei”.

“Era berean, eskuraketa-balioa txikiagotu egingo da bazkideei egotzi zaizkien galera sozialen zenbatekoan. Nolanahi ere, kontabilitateko irizpideetan hala ezartzen bada, eskuraketa-balioari kendu egingo zaio haiek eskuratzen direnetik eskualdatzen diren arte igarotako denboran zehar bazkideei egotzitako finantza-gastuen, zerga-oinarri negatiboaren eta kenkariaren zenbatekoa, harik eta eskuraketa-balioa deuseztatu arte, eta eragiketa horri dagokion finantza-sarrera ere zerga-oinarriaren sartu behar da”.

Hogeita hiru. 79. artikuluko 3. zenbakia honela idatzita geratu da:

“3. Artikulu honen 2. idatz zatian ezarritako araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araupetutako talde inbertsioko erakundeetatik (foru arau honetako 81. artikuluan ezarritakoak ez beste batzuk) Europar Batasuneko estatu batean eratu eta egoiliartuta daudela egoitza Espainian duten erakundeek merkaturatzeko asmoarekin Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatutakoetako bazkideei edo partaideei aplikatuko zaie.”

Hogeita lau. 89 bis artikulua berria gehitzen da; hona:

“89 bis artikulua. Finantza gastuen kengarritasunaren muga.

1. Zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzeko, foru arau honen 25 bis artikuluan finantza gastuen kengarritasunari dagokionez ezarritako muga zerga taldeari berari aplikatuko zaio. Muga hori ez da aplikatuko entitatea azkentzen den kasuetan, salbu eta azkentze hori zerga taldearen barruan gertatzen bada eta azkendutako entitateak kendu gabeko finantza gasturen bat eduki badu taldean sartu denean.

Hala ere, kreditu edo aseguru entitateek zerga baterakuntzaren araubidean tributatzen badute izaera hori ez duten beste entitate batzuekin batera, foru arau honen 25 bis artikuluan ezarritako muga kalkulatzekoan kontuan hartuko dira azken entitate horien mozkin operati-boa eta finantza gastu garbiak, bai eta talde osoari dagokionez bidezkoak diren ezabaketa eta eransketa guztiak ere.

2. Entitate bat zerga talde batean sartzen bada, zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzekoan arau hauek aplikatuko dira:

a) Zerga taldean sartzean kendu gabe dituen finantza gastu garbiak, foru arau honen 25 bis artikuluan aipatutakoak, entitatearen beraren mozkin operatiboaren ehuneko 30eko mugaraino kenduko dira, entitate horri dagozkion ezabaketak eta eransketak kontuan izanik, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat. Finantza gastu horiek kontuan hartuko dira, halaber, 25 bis artikuluko 1. idatz zatian aipatutako muga zehazterakoan.

Gainera, foru arau honen 25 bis artikuluko 2. idatz zatian ezarritako aldea, entitate batek zerga taldean sartu aurretik sortutakoa, aplikagarria izango da entitateak berak sortutako finantza gastuei dagokienez.

b) Foru arau honen 25 bis artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zerga baterakuntzako talde batean sartzen diren edozein motatako entitateen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzak eskuratzea xede duten zorren ondoriozko finantza gastuengatik kenkaria aplikatzen denean kenkari horrek entitate edo zerga talde eskuratzaillearen mozkin operatiboaren ehuneko 30eko muga gehigarria izango du, dagozkion ezabaketak eta eransketak kontuan hartuta, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoarekin bat. Ez da mozkin operati-boa horretan sartuko eskuratutako entitateari edo zerga taldean eskurapenaren ondoko lau urteetan hasten diren zergaldietan sartzen den beste edozein entitateri dagokiona. Finantza gastu horiek kontuan hartuko dira, halaber, 25 bis artikuluko 1. idatz zatian aipatutako muga zehazterakoan.

Letra honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko finantza gastu ez-kengarriak hurrengo zergaldietan kengarriak izango dira, letra honetan eta foru arau honen 25 bis artikuluko 1. idatz zatian ezarritako mugaraino.

Letra honetan ezarritako muga ez da aplikatuko entitateen kapitaleko edo funts propioetako partaidetzak eskuratzen diren zergaldian, baldin eta eskurapena zorraren bidez finantzatzen bada, gehienez ere, eskurapen prezioaren ehuneko 70eraino. Halaber, ez da muga hori aplikatuko hurrengo zergaldietan, baldin eta zor horren zenbatekoa txikitu egiten bada, eskurapenaren unetik, hurrengo zortzi urteetako bakoitzari dagokion zati proportzionala kenduz gutxienez ere, harik eta zorra eskurapen prezioaren ehuneko 30 izan arte.”

Hogeita bost. Aldatu egiten dira 99. artikuluko 1. idatz zatiko lehen paragrafoa eta c) letra, eta honela idatzita geratzen dira:

“1. Baldin eta, zerga baterakuntzaren araubidea galtzen edo zerga taldea azkentzen den zergaldian, kendu edo konputatu gabeko finantza gasturen bat, sartu gabeko ezabaketaren bat, foru arau honen 51. artikuluko 4. idatz zatian aurreikusitako moduan zerga oinarrian sartu gabeko zuzenketaren bat, zerga taldearen zerga oinarri negatiboren bat edo kuotan konpentsatu gabeko kenkariren bat badago, hauxe egin behar da:”

“c) Araubidea galtzen edo azkentzen den zergaldian zerga taldean dauden entitateek kendu gabe dauden zerga taldearen finantza gastu garbiak kentzeko eskubidea hartuko dute, hain zuzen ere foru arau honen 25.bis artikuluan aipatutako eskubidea, baita ere foru arau honen 25.bis artikuluko 2. idatz zatian ezarritako aldea beren buruari egoztekoa eta konpentsatu gabe dauden zerga taldearen zerga oinarri negatiboak konpentsatzekoa. Hori guztia, haien sorkuntzan parte hartu duten proportzioan.

Kompentsazioa foru arau honetako 55. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako epealdia amaitzeko falta diren zergaldietan zerga banaka ordaintzeko araubidean zehazten diren zerga oinarri positiboekin egingo da. Epealdia zerga taldeak zerga oinarri negatiboa dauzkan zergaldiaren hurrengotik aurrera kontatuko da.

Aurreko a) letrako bigarren edo hirugarren paragrafoan ezarritakoa aplikagarria den kasuetan, foru arau honetako 89.bis artikuluko 2. idatz zatian eta 92. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako arauak aplikatzerakoan kontuan hartuko da nagusia izateari utzi dion entitate nagusia buru zuen zerga taldea osatzen zuten entitateen multzoa edo, foru arau honetako 85. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik eraturitako zerga taldeen kasuan, hura eratzen zuten entitateen multzoa.”

Hogeita sei. 130 artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

“130. bis. Artikulua. Ordainketa Zatikatua.

1. Urriko lehen hogeita bost egun naturaletan, zergadunek zatikako ordainketa eta autolikidazioa egin beharko dute hilabete horretako lehen egunean abian den zergaldiari dagokion likidazioaren kontura.

Ordainketa zatikatua ez dute egin beharko foru arau honetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera mikroenpresa edo enpresa txiki ez diren entitateek, ezta 56. artikuluko 4 eta 5 zenbakietan ezarritako karga-tasen arabera tributatzen duten entitateek ere.

2. Artikulu honetan aipatzen den ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria hau izango da: aitorpena egiteko epea urriaren 1ean amaituta duen azken zergaldiko zerga-oinarria.

Betebeharra izan arren Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu ez bada, oinarria izango da aurkeztutako azken aitorpenaren edo, hala badagokio, autolikidazioaren zerga-oinarria.

Aitorpena egiteko epea lehen esandako moduan amaituta duen azken zergaldia urtebete baino txikiagoa bada, zerga-oinarria urtebetekoa izango da, 12 hilabeteko aldia osatu arte.

3. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko bosteko tasa aplikatu behar zaio aurreko paragrafoan ezarritako oinarriari. Hortik ateratzen den kuotatik kenduko dira zergadunaren diru-sarreretan egindako atxikipenak edo konturako sarrerak, aurreko zenbakian aipatutako zergaldikoak.

4. Ordainketa zatikatua zerga-zorra izango da, eta kengarria izango da zergaren kuota osoan.

5. Erregelamendu bidez ezarri ahal izango da Foru Aldundiak ordainketa zatikatua ofizioz egitea, bai eta zein kasutan erabili litekeen ordainketa zatikatuaren likidazioaren modu hau.”



Hogeita sei. Xedapen gehigarri berri bat gehitu da, hogeita bosgarrena, eta honela geratu da idatzita:

“Hogeita bosgarrena. Foru Arau honen 13. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz bestelako kontsiderazioa izatera pasatzen diren enpresek mantendu egingo dute, dagokienaren arabera, 21. artikulua 1. atalaren b) letrak aipatzen duen amortizazio-araubidea edo 21. artikulua 2. atalean ezarritako amortizazio-araubidea, mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertaineko kontsiderazioa izan aurretiko zergaldian zegokien amortizazio-araubidea zuten ondasunei dagokienez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da baldin eta enpresaren kontsiderazio-aldaketa, aipatutako 13. artikuluko irizpideak aplikatzeagatik, enpresa handitzeagatik bada.”

Bigarrena. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldien ondorioetarako, honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan:

Bat. 32. artikuluko 4. zenbakia honela idatzita geratu da:

“4. Foru arau honetako 13. artikuluko 1. zenbakian aipatutako mikroenpresek euren zerga-oinarririk kendu ahal izango dute euren zerga-oinarri positiboaren ehuneko 10, zenbaki honetan ezarritakoa aplikatu baino lehen, Foru Arauaren edo Foru Arau honen bigarren xedapen gehigarriak edo 48. artikulua aipatzen dituen errenta positiboak jaso baino lehen, beraien VI. Tituluaren III. Kapituluaren jasotakotik eratortzen direnak baino lehen, eta Foru Arau honen 55. artikuluan bere dimentsioagatik dituen zailtasunengatik zerga-kontentsazioaren kontzeptuan jasotako zerga-oinarri negatiboaren kontentsazioa baino lehen.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko mikroenpresa hori Foru Arau honen VI. Tituluaren III. Kapituluaren aurreikusitako erregimen bereziaren arabera tributatzeko duen interesen ekonomikoko talde espainiar edo europarra edo aldi baterako enpresa-batasuna bada.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatzea bateraezina izango da titulu honetako V. kapituluaren ezarritako zuzenketak aplikatzearekin.

Bi. 56. artikuluko 1. zenbakia honela idatzita geratu da:

“1. Karga-tasa orokorra hauxe izango da:

a) Oro har, ehuneko 24.

b) Foru Arau honetako 13. artikuluan definitutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, ehuneko 20.

c) Ehuneko 28ko karga-tasa jasango dute kreditu-entitateek eta foru arau honen VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako arauen arabera tributatzeko duen talde bateko kide diren entitateek, taldeko kide diren entitateetako bat kreditu-entitatea denean.”

Hiru. 56. artikuluko 3. eta 6. zenbakiak honela idatzita geratuko dira:

“3. Honako hauek ehuneko 19ko karga-tasa jasango dute:

a) Foru arau honetako 12.2 artikuluan aipatzen diren entitateek, alegia, salbuespen partziala dutenek.

b) Aseguru orokorretako mutuek eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek, hurrengo 5. zenbakiko karga-tasa aplikatzen ez bazaie.

c) Elkarrekiko berme-sozietateek eta birfidantzamenduko sozietateek, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta badaude.

d) Baloreen Burtsa zuzentzen duten sozietateak, bai eta legez Bilboko Baloreen Burtsaren kide diren balore- eta burtsa-agentziak, Baloreen Merkatuaren Legeak ezarritakoaren arabera.”

“6. 31eko tasaren arabera tributatu dute Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 1998ko urriaren 7ko 34/1998 Legean ezarritakoaren arabera hidrokarburoen hobiak eta lurpeko bilguneak esploratu, ikertu eta ustiatzen dituzten entitateek.

Karga-tasa orokorraren pean jarriko dira, berriz, birfintzeari loturik dauden jarduerak eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa, ustiapen, garraio, biltegiatze, arazketa eta ateratako hidrokarburoen salmenta ez diren gainerako jarduera guztiak, bai eta hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak lur azpian biltegiatzeko jarduera ere.

Hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak biltegiatzen soilik aritzen diren entitateei ezin zaie aplikatu foru arau honetako 20.3 artikuluan, 29. artikuluan eta 55.4 artikuluan xedatutakoa, eta artikuluko honetako 1. zenbakian ezarritako tasa orokorraren arabera tributatu dute.”

Lau. Honela geratzen da idatzita 59. artikulua:

“59. artikulua. Benetako kuota eta gutxienerako tributazioa.

1. Benetako kuota hau da: kuota likidoari titulu honetako III. Kapituluaren ezarritako kerkarien zenbatekoa gutxituta geratzen den zenbatekoa.

2. Betetako kuota ezin da inoiz negatiboa izan.

3. Zerga-oinarri positiboak eduki dituzten zergadunen benetako kuota lortzeko kerkariak aplikatzen bazaizkio kuota likidoari (foru arau honetako 62-64. artikuluetako kerkariak izan ezik), eragiketa horretako ateratzen den zenbatekoa ezin da izan zerga-oinarriaren ehuneko 17 baino gutxiago, oro har. Foru Arau honen 56. artikuluan 1. atalaren c) letrak aipatzen dituen entitateen kasuan, portzentajea ehuneko 13koa izango da.

Hala ere, kuota likidua kerkariak aplikatuta murriztearen ondorioz lortzen den benetako kuota ezin da izan honako kasu hauetako ehuneko bako bako txikiagoa:

a) Enpresa txikiak edo mikroenpresak: zerga-oinarriaren ehuneko 15.

b) Foru arau honetako 56.3 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatu duten entitateak: zerga-oinarriaren ehuneko 11,75.

c) Foru arau honetako 56.6 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatu duten entitateak: zerga-oinarriaren ehuneko 20,25.

4. Entitateak aurreko ekitaldiko lan-kontratuko plantilla mugagabearen batez besteko kopurua mantentzen badu edo kopuru hori gehitzen badu, aurreko zenbakiko ehunekoak bako bako honako hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren: ehuneko 15, ehuneko 11, ehuneko 13, ehuneko 9,75 eta ehuneko 18,25.

5. Aurreko bi zenbakietan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako 56. artikuluko 2., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako karga-tasaren arabera tributatu duten entitateei.”

#### **4. artikulua. Kooperatiben erregimen fiskala**

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldien ondorioetarako, honako aldaketa hauek egiten dira kooperatiben erregimen fiskalari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan:

Bat. 14.bis artikuluan 2. atala honela idatzita geratzen da:

“Bi. Zerga-oinarri orokorrean kooperatiban erreta guztiak sartzen dira, hurrengo 3. zenbakian aipatzen diren etekin osoak izan ezik.

Zerga-oinarri orokorra zehazteko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan jasotako arauak aplikatuko dira, Foru Arau honen 15. artikulutik 18ra eta 23.ean erregulatutako espezialitateetan.

Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru Arauaren 55. artikuluko 1. zenbakian aipatutako ehuneko 70eko portzentajea tamaina txikiako kooperatibei aplikatuko zaie, foru arau horren 13. artikuluan enpresa bat mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko ezarritakoa betetzen badute.”

Bi. Aldatu egiten da 18.bis artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

“Hiru. Zerga oinarri berezia ezin da txikitu zerga-oinarri negatiboak konpentsatuta (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 55. artikuluan aipatutako konpentsazioa). Hori kooperatiben zerga-oinarri orokorrarekin bakarrik egin daiteke.”

Hiru. 23.bis artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

“23.bis artikulua. Ordainketa zatikatua.

1. Urriko lehen 25 egun naturaletan, kooperatibek zatikako ordainketa eta autolikidazioa egin beharko dute hilabete horretako lehen egunean abian den zergaldiari dagokion likidazioaren kontura.

Kooperatiba txikiek ez dute ordainketa zatikatua egin beharko, foru arau honetako 13. artikuluan mikroenpresatzat edo enpresa txikitat hartzeko ezarritakoa betetzen badute.

2. Artikulu honetan aipatzen den ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria hau izango da: aitorpena egiteko epea urriaren 1ean amaituta duen azken zergaldiko zerga-oinarria.

Betebeharra izan arren Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu ez bada, oinarria izango da aurkeztutako azken aitorpenaren edo, hala badagokio, autolikidazioaren zerga-oinarria.

Aitorpena egiteko epea lehen esandako moduan amaituta duen azken zergaldia urtebete baino txikiagoa bada, zerga-oinarria urtebetekoa izango da, 12 hilabeteko aldia osatu arte.

3. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko bosteko tasa aplikatu behar zaio aurreko paragrafoan ezarritako oinarriari. Hortik ateratzen den kuotatik kenduko dira zergadunaren diru-sarreretan egindako atxikipenak edo konturako sarrerak, aurreko zenbakian aipatutako zergaldikoak.

4. Ordainketa zatikatua zerga-zorra izango da, eta kengarria izango da zergaren kuota osoan.

5. Erregelamendu bidez ezarri ahal izango da Foru Aldundiak ordainketa frakzionatua ofizioz egitea, bai eta zein kasutan erabili litekeen ordainketa frakzionatuaren likidazioaren modu hau.”

#### **5. artikulua. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga**

Honako aldaketa hauek egiten dira martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenean:

Bat. Honela idatzita geratzen da 7. artikuluko 3. idatz zatiko lehenengo paragrafoa:

“3. Administrazio emakidek eskubideen eratzetzat tributatu dute, foru arau honetako 43. artikuluko Bat idatz zatiko d) letran xedatutako zerga tasa aplikatuta, emakiden izaera, iraupena eta zergapetzen dituzten ondasunak edozein izanda ere.”

Bi. Honela idatzita geratzen da 10. artikulua:

“10. artikulua. Eskubideen eskualdatzeekin parekatutako ekintzak.

Bahitura, hipoteka eta antikresi hartzekodunen eskubideen subrogazioa eskubide eskualdaketatzat hartuko da, eta foru arau honetako 43. artikuluko Bat idatz zatiko e) letran xedatutako zerga tasaren arabera tributatu du.”

Hiru. Honela idatzita geratzen da 21. artikulua:

“21. artikulua. Enfiteusi eta erreserba zentsuak.

Enfiteusi eta erreserba zentsuen eraketan, kontzeptu horrengatik egin beharreko zerga ordainketa gorabehera, ondasunen lagapenari dagokion likidazioa ondasunek duten balioaren arabera egingo da, haien kapitala kenduz.”

Lau. Azken paragrafo bat gehitu zaio 23. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

“Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikagarri izango konkurtso-prozeduren barruan egindako ekoizpen-unitateen transmisioetan, eskuratzailerak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zergapeko bat denean, zeinak eskubidea lukeen ekoizpen-unitatea horien barruko higiezinaren entregatzei dagokien kuotaren kenkari osorako, unitate horiek aipatutako zergatik salbuetsita ez baldin badaude.”

Bost. Honela idatzita geratzen da 25. artikuluko 3. idatz zatia:

“3. Era berean, «kostu bidezko ondare eskualdaketaren» modalitatearen bidezko likidazioa egitea egokia izan arren Balio Erantsiaren gaineko Zerga bidegabeki kobratuko balitz, horrek ez lituzke, inondik ere ez, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren pean dauden zergadunak zerga betebeharretatik salbuetsiko, subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela eta dagozkion gaizki kobratutako zergak itzultzeko eskubidea ere kontuan hartuz, hala dagokionean.”

Sei. Honela idatzita geratzen da 30. artikulua:

“30. artikulua. Ondasun higiezinak.

Landa eta hiri ondasun higiezinak Arabako Foru Aldundiak berariaz ematen dituen araei jarraituz balioetsiko dira. Arau horiek aldiari behin eguneratuko dira, balioak unean uneko egoera ekonomikoari egokitzeko.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen arauetatik sortutako balioa dagokion aitortpena egiteko gutxienerako balio konputagarritzat hartuko da.

Aurrekoa gorabehera, zergadunak gutxienerako balio konputagarria balio erreala baino handiagoa dela pentsatzen badu, agirian agertzen den balioaren gainean egin beharko du autolikidazioa.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Administrazioak balio erreala egiaztatzeko duen eskumena hartu beharko da kontuan.

Artikulu honek aipatzen duen balioen eguneratzeak ez du zertan Arabako Foru Aldundiak horretarako emandako arauetan jasotako kasu, suposamendu, kontzeptu edo zatitze guztietan berdina izan.”

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 31. artikuluko bigarren paragrafoa:

“Aurreko paragrafoak aipatzen dituen arauetatik sortutako balioa dagokion likidazioa egiteko gutxienerako balio konputagarritzat hartuko da.”

Zortzi. Honela idatzita geratzen da 41. artikuluko 1. idatz zatia:

“1. Enfiteusi eta erreserba zentsuen eraketan, kontzeptu horrengatik egin beharreko zerga ordainketa gorabehera, ondasunen lagapenari dagokion likidazioa ondasunek duten balioaren arabera egingo da, haien kapitala kenduz.”

Bederatzi. Honela idatzita geratzen da 44. artikulua:

44. artikulua. Alokairuetarako zerga tasa.

1. Hiri finken errentamenduengatik dirutan ordainduko da zerga, honako eskala honen arabera:

EUROAK				
Gehienez	30,05			0,09
	30,06		60,10	0,18
	60,11		120,20	0,39
	120,21		240,40	0,78
	240,41		480,81	1,68
	480,82		961,62	3,37
	961,63		1.923,24	7,21
	1.923,25		3.846,48	14,42
	3.846,49		7.692,95	30,77
7.692,96tik aurrera, 0,024040 euro 6,01eko edo frakzio bakoitzeko.				

2. Zerga ehuneko 1eko tasarekin ordainduko dute mota guztietako ondasunen, obren, zerbitzuen, eskubideen eta aprobeitxamenduen errentamenduek, aurreko idatz zatian jasotakoek izan ezik.”

Hamar. Honela idatzita geratzen da 61. artikuluko 2. idatz zatia:

“2. Igorpen funtzioa duten edota kanbio letrak ordeztzen dituzten dokumentuek eta gordailu ziurtagiriek dirutan ordainduko dute zerga, aurreko idatz zatian aipatutako karga eskalaren arabera. Zerga ordaintzeko berariaz prestatutako eredia erabiliko da eta erregelamenduz adierazten den epean aurkeztuko da. Epe horretan aurkeztu ezik, dokumentu horiek galdu egingo dute araudiak ematen dien betearazpen indarra.”

Hamaika. Honela idatzita geratzen da 61. artikuluko 3. idatz zatia:

“3. Foru Aldundiak eskatu ahal izango du, merkataritza trafikoaren ezaugarriengatik edo mekanizazio prozesuarengatik hala komeni denean, merkataritza dokumentua erabat identifikatu ahal izateko neurri egokiak har daitezela eta dagokion ordainketa dirutan egin dadila.”

Hamabi. Honela idatzita geratzen da 62. artikulua:

“62. artikulua. Efektu tinbredunak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko ditu efektu tinbredunen forma, estanzazioa, espeziea, ezaugarriak eta zenbakitzea, zuzeneko tinbrea lortzeko kasuak eta prozedura, efektu horiek trukatzeko baldintzak eta haiek baliogabetzeko modua.”

Hamahiru. Honela idatzita geratzen dira 76.–82. bitarteko artikulua:

“76. artikulua. Autolikidazioa eta dokumentuen aurkezpena.

1. Subjektu pasiboen betebeharrak izango da zerga honen autolikidazioa aurkeztea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez adierazten dituen lekuan eta moduan.

Hala ezartzen den kasuetan, bide telematikoa erabili beharko dira autolikidazioa aurkezteko, horretarako zehazten diren prozedura eta baldintzak betez.

Halaber, foru arau honetan jasotako zerga egitateen gaineko dokumentuak aurkeztu beharko dira, bide telematikotik edo paperean, nola aurkezten den autolikidazioa. Horrez gainera, eskualdatutako ondasunen eta eskubideen edo sozietate-eragiketaren edo egintza juridiko dokumentatuaren balio errealak ere agerrarazi beharko da.

2. Autolikidazio hori erregelamenduz ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko da zerga honen kargapeko zerga egitateengatik, dokumentu berean jasorik badaude eta aipatutako zergaren autolikidazioa egin behar bada haiengatik.

4. Salbuespen edo murrizketaren bat onartzeko aintzat hartu zitzaizkien baldintzak betetzeari uzten badiete, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute aurreko 2. idatz zatian ezarritako epe berean, ez-betetzea gertatzen den egunetik aurrera zenbatuta.

5. Autolikidazioa eta dokumentua aurkezten dituenak, aurkezteagatik bakarrik, Zerga ordaintzera behartuta dauden mandataria izango da. Horrela, aurkeztu duen autolikidazioarekin edo dokumentuarekin lotuta egiten zaizkion jakinarazpen guztiek, edota sinatzen dituen eginbideek, interesdunek euren egin izan balituzte bezalako balio eta ondorio berak izango dituzte.

6. Higiezinaren eskualdaketetan, zergadun ez-egoiliarrek zerga egoitza beren ordezkarien helbidean izango dute, Zerga dela eta zerga betebeharrak betetzearen ondorioetarako. Izan ere, ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 10. artikuluan xedatzen duenaren arabera, ordezkari bat izendatu beharko dute. Ordezkaria izendatzen denean, Zerga Administrazioari horren berri eman beharko zaio, higiezina eskuratzen denetik bi hilabeteko epean.

Ordezkaririk izendatzen ez denean, edo izendapen horren berri emateko betebeharra betetzen ez denean, eskualdatzen den higiezina hartuko da zergadun ez-egoiliarren zerga egoitzatza.

77. artikulua. Epaiak eta aurkibideak igortzea.

1. Organo judizialek mota guztietako ondasunak edo eskubideak (ondasunen edo zerbitzu pertsonalen, kredituen edo kalte ordainen prezio diren eskudirutako kopuruak izan ezik) eskualdatzea edo adjudikatzea xede duten betearazpeneko epaien edo epai irmo direnen hileko zerrenda bidaliko diote Arabako Foru Aldundiari.

2. Notarioek, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian, Arabako Foru Aldundiari aurreko hiruhileko naturalean eskuetsi dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote, azken borondateari, seme-alaben onarpenari eta Foru Aldundiak zehaztutako beste edozeri loturikoak izan ezik. Halaber, sinadurak ezagutzeko edo legeztatzeko aurkeztu zaizkien zerga ordainketari lotutako kontratuak jasotzen dituzten agiri pribatuen zerrenda bidali beharko dute, epe berberaren barruan. Era berean, zergari lotutako agirietan honako hauek jaso beharko dira, lege oharren artean eta espresuki: interesdunek zein epetan aurkeztu behar duten agiri horien autolikidazioa, zein ondasunengatik ordaindu behar den eskualdaketen gaineko zerga, eta, aurkeztu ezean, zein erantzukizun egokituko zaien.

3. Artikulu honetan jasotakoaz gain, kontuan hartu behar da guztion kolaborazioko betebeharra, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa.

78. artikulua. Autolikidazioen aurkezpenaren kontrola.

1. Baldin eta, notarioek eskuetsitako dokumentu guztien aurkibidetik edo beste iturri batzuetatik ateratako informazioaren arabera, Zerga Administrazioak susmatzen badu zergapekoren batek ez duela zerga egitateren baten autolikidaziorik egin, Zerga Administrazioak notarioarengana joko du eta eskuetsi duen dokumentuaren kopia elektronikoa eskatuko dio. Notarioak hamabost egun balioduneko epean eman beharko du eskatutako dokumentazioa.

2. Jarduketa horien bitartez egiaztatzen bada zerga egitateren bat aitortu gabe utzi dela, Zerga Administrazioak errekerimendua egingo dio zergapekoari, hilabeteko epean autolikidazioa aurkez dezan.

3. Zergapekoak autolikidazioa aurkezten ez badu, edo aurkeztu beharrik ez duela justifikatzen ez badu, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio egokiak egin ahal izango ditu, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik. Horrelako kasuetan, behin-behineko likidazioan aitortutako baliotzat hartuko da notario agirian jasota dagoena. Hala ere, balio hori eskualdatutako ondasunaren edo eratu nahiz lagatako eskubidearen balio erreala baino txikiagoa bada, balio erreala hartuko da.

4. Eskatutako likidazioa bidegabeki beste administrazio batean aurkeztu eta sartu bada, zerga zorraren sarrera eten egingo da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 68.8 artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

79. artikulua. Ordaindu izanaren egiaztapena.

Epategiek, bankuek eta gainerako finantza erakundeek, elkarteek, sozietateek, funtzionarioek, partikularrek eta edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ez diote ondasunik emango titularrak ez den beste inori, baldin aldez aurretik Zerga ordaindu izana, salbuetsita egotea edo atxikita ez egotea egiaztatzen ez bada, Administrazioak hala baimentzen duenean izan ezik.

80. artikulua. Dokumentuen onarpena eta erregistro itxiera.

1. Zerga honen kargapeko egintzak edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego eta erregistro publikoetan, eta ez dute inolako ondoriorik sortuko, baldin eta aurretik ez bada frogatzen zerga zorra ordaindu zaiola zerga administrazio eskudunari edo egintza edo kontratua ez dagoela zergapean edo kargatik salbuetsita dagoela (edo ez dagoela agiria halakoetan aurkeztu beharrik). Administrazio interesdunari berehala jakinaraziko zaizkio gorabeherak.

Auzitegiek eta epaitegiek Zerga likidatzeko eskumena daukan zerga administrazioari haren aurrean likidaziora aurkeztu izanaren oharrak ez duten dokumentuen kopia baimenduak igorriko dizkiote, egintzaren berri dutenetik hilabete pasatu baino lehen.

Idatz zati honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Zerga ordaindutat joko da agiriarekin batera zergaren ordainketa, salbuespena edo kargarik eza jasotzen duen Zergaren autolikidazioa aurkezten bada.

Zergaren autolikidazioa bide telematikoetik aurkeztu bada, idatz zati honetako lehenengo paragrafoan aipatutako ordainketa, salbuespena edo kargarik eza autolikidazioaren kopiaren bitartez frogatuko da. Agiri horretan zigilu elektronikoa bat jasoko da, Arabako Foru Aldundiko sistema informatikoei editatua, zeinak egindako aurkezpena frogatuko baitu, bai eta aurkezpenaren eginbide ziurtatua ere, berariaz onartzen den foru aginduan zehazten denaren arabera.

Beti ere, zigilu elektronikoa eta eginbide horien egiazkotasuna eta baliozkotasuna egiaztatu ahal izango dira, organo emailearen artxiboetan sartuz bide telematikoetatik.

2. Erregistratzaileak eskualdatutako ondasuna edo eskubidea likidazioaren edo likidazio osagarriaren ordainketari atxikita dagoela agerraraziko du bazterreko oharra eginez.

Bazterreko oharra ofizios egingo da. Egindako likidazioaren ordainketa gutuna aurkezten denean ondorerik gabe geldituko da eta indargabetu egin beharko da. Gauza bera gertatuko da preskripzio epea pasatutakoan.

Ohar horretan nahitaez jarri beharko da autolikidazioarengatik ordaindutakoaren zenbatekoa, salbu eta salbuespena edo kargarik eza alegatzen denean.

3. Ez da beharrezkoa izango zerga administrazioan ondoko hauek aurkeztea:

a) Efektu publikoen, akzioen, obligazioen eta mota guztietako balore negoziagarrien eskualdaketa formalizatzeko agiriak, notarioek eta baloreen sozietate eta agentziek kontu hartuta.

b) Erregistro publikoetan prebentziozko idatzoharrak egiteko agindua dakarten dokumentuak, Estatuak edo lurralde nahiz erakunde administrazio publikoek eskatzen dutenean idatzohar horiek egiteko.

c) Xedetzat kopurua edo gauza balioztagarria ez duten notario eskritura eta akten kopiak eta mota guztietako notario lekukotzak, zergapeko egintzak agerrarazten dituzten agiriak izan ezik, agiritan ordainketa, salbuespen edo lotura gabetasunaren oharra ageri ez bada.

d) 192.323,87 eurotik gorakoak ez diren kanbio letrak eta protesto aktak.

e) Arabako Foru Aldundiak zerga efektu tinbredunen bidez ordaindu beharra ezarria duen egintza eta kontratuei buruzko agiri guztiak, bai eta aipatutako foru aldundiak zehazten dituenak ere.

4. Zergagatik zorpeko geratu direnen eraginkortasuna lortzeko jarraitutako premiamenduzko administraziozko prozeduretan zordunen baimenaren inskripzioa baimendu ahal izango da, betiere Zerga bilketari buruzko Erregelamenduan jasotako baldintzetan.

5. Ondasun higigarriak epeka saltzeko kontratuak eta mailegu kontratuak, uztailaren 13ko 28/1998 Legeak, ondasun higigarrien epekako salmentarenak, aipatzen dituenak, lege horretako 15. artikuluan azaltzen den erregistroan sar daitezke zerga egoerari buruzko administrazio oharrik egin gabe.

81. artikulua. Subjektu pasiboaren aldaketa.

Aldez aurretik dagokion Zerga ordaindu duela edo horretatik salbuetsita dagoela egiaztatzen ez bada, ezin izango da inolako tributuren edo ordainarazpenen subjektu pasiborik aldatu, betiere aldaketa horrek foru arau honetan zergapetutako ondasunak, eskubideak edo egintzak eskualdatzea dakarrenean.

## V. KAPITULUA ZERGAREN ORDAINKETA

82. artikulua. Arau orokorrak.

1. Subjektu pasiboek, foru arau honen 76. artikuluan xedatutakoaren arabera Zergarengatik egin behar duten autolikidazioa aurkeztean, zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez adierazitako lekuan eta moduan sartu beharko dute.

2. Foru arau honetan xedatutakoa aplikatuz Zerga Administrazioak egiten dituen likidazioen ordainketa erregelamenduz zehazten den epean egin beharko da.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.”

## II. TITULUA ARABAKO ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA ALDATZEA

### 6. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren aldaketa

Honako aldaketa hauek egiten dira otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako zergenean (foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera izango dituzte ondorioak):

Bat. 65.bis. artikulua 2. atala honela idatzita geratzen da:

“2. Administrazioen eskubidea konpentsatutako edo konpentsatzeko dauden oinarriak edo kuotak edo aplikatutako edo aplikatzeko dauden kenkariak egiaztatze prozedura has-teko hogeita hamabost urtetan preskribatuko da, oinarri edo kuota horiek konpentsatzeko edo kenkari horiek aplikatzeko eskubidea sortu zen ekitaldiari edo zergaldiari dagokion aitortpena edo autolikidazioa aurkezteko ezarritako arauzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Foru Arau honen 145. artikulua aipatzen dituen ikuskaritza-prozedura orokorren kasuan, likidatzeko eskubidea preskribatu gabe dituzten zerga-betebehar eta aldiei dagokienez, konpentsatutako edo konpentsatzeko dauden oinarri edo kuota edo aplikatutako edo aplikatzeko dauden kenkari guztien egiaztatzea jasotzat joko da edonola ere, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera egiaztatze eskubidea preskribatu gabe badute. Bestela, berariaz adierazi beharko da prozeduraren xedea jaso dagoela atal honek aipatzen duen egiaztatzea, eta adierazi beharko da zein ekitaldi edo zergaldietan sortu zen egiaztatuko diren oinarriak edo kuotak konpentsatzeko edo kenkariak aplikatzeko eskubidea.

Atal honek aipatzen duen egiaztatzea eta, hala badagokio, konpentsatutako edo konpentsatzeko dauden oinarriak edo kuotak, edo aplikatutako edo aplikatzeko dauden kenkariak zuzentzea edo arautzea, lehen paragrafoan ezarritako preskripzioa ez badute, soilik egin ahal izango da likidatzeko eskubidea preskribatu gabe duten zerga-betebehar eta aldiei buruzko egiaztatze-prozedurak egitean.”

Bi. Honela idatzita geratzen da 92. artikuluko 1. idatz zatiko n) letra:

“n) Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari eta Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialari enpresen errola publikoa egiten laguntzea, apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.”

Hiru. Honela idatzita geratzen da 190. artikuluko 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoa:

“1. Arau hauste baten ondorioz jartzen den diruzko isuna 30.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa erabiltzen direnean foru arau honetako 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran jasotako irizpidea (zergen arloko arau hausteak behin eta berriro errepikatzea) eta, horrez gain, idatz zati bereko c) letran jasotakoa (iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzeko), orduan zehapen osagarri hauek ere ezarri ahal izango dira:”



Lau. Honela idatzita geratzen da 190. artikuluko 2. idatz zatiko lehenengo paragrafoa:

“2. Arau hauste baten ondorioz jartzen den diruzko isuna 60.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa erabiltzen direnean foru arau honetako 191. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran jasotako irizpidea (zergen arloko arau hausteak behin eta berriro errepikatzea) eta, horrez gain, idatz zati bereko c) letran jasotakoa (iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzeko), orduan zehapen osagarri hauek ere ezarri ahal izango dira:”

Bost. Kendu egiten da 191. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra.

Sei. Honela idatzita geratzen da 195. artikulua:

“195. artikulua. Autolikidazio baten ondoriozko zerga zorra ez ordaintzeagatik arau haustea.

1. Zergen arloko arau haustea izango da autolikidazioa behar bezala egitearen ondoriozko zerga zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea zerga bakoitzaren araudian ezarritako epearen barruan, salbu eta foru arau honetako 27. artikuluan xedatutakoaren arabera hura erregularizatzen denean edo foru arau honetako 165. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra aplikatu ahal denean, aurretiazko errekerimendurik egin gabe.

Zergen arloko arau haustea izango da, halaber, errenten eratzikipenean erakundeek eman ez dituzten edo oker eman dituzten zenbatekoen ondorioz bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ordaindu beharreko zerga zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea.

2. Zehapenaren oinarria araren bat haustearen ondorioz autolikidazioan ordaindu ez den zenbatekoa izango da.

3. Zergen arloko arau hauste horrengatik zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkututzen ez bada.

Hala ere, atxikitako zenbatekoen, egindako konturako sarreren edo jasanarazitako zergen ordainketa ez egitearen ondorioz sortu bada arau haustea, zehapenaren zenbatekoa zehapenaren oinarriaren ehuneko 75 eta ehuneko 150 artekoa izango da, daturik ezkutatu ez bada.

4. Zergen arloko arau hauste horrengatik zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatu badira.

Hala ere, atxikitako zenbatekoen, egindako konturako sarreren edo jasanarazitako zergen ordainketa ez egitearen ondorioz sortu bada arau haustea, zehapenaren zenbatekoa zehapenaren oinarriaren ehuneko 125 eta ehuneko 150 artekoa izango da.

5. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da autolikidaziorik aurkezten ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten autolikidazioak aurkezten direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta den aitortpenak, baldin eta datuak ezkutatzeko zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.

6. Zergapekoak berari ez zegokion itzulketa bat jaso badu eta gauzatutako erregularizazioaren ondorioz artikuluko honetan araututako zehapenen bat ezartzen bazaio, ordaindu ez den zenbatekoa oker lortutako zenbatekoari autolikidazioan ordaindu beharko zen zenbateko osoa gehitzearen emaitza dela ulertuko da.

Horrelakoetan, foru arau honetako 197. artikulua aipatzen duen itzulketa oker eskuratzeari buruzko arau hausteari ez zaio zehapenik aplikatuko.

7. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa hala bada ere, ehuneko 30eko portzentajeaz zigortuko da zergapekoak geroago aurkeztutako autolikidazioan sartu edo erregularizatu dituen zergak edo konturako ordainketak epe barruan ordaindu ez izana, foru arau honek 27. artikuluko 4. idatz zatian aurretiazko errekerimendurik gabeko garaiz kanpoko aitortpenagatik errekariguen aplikazioari buruz jaso dituen baldintzak bete gabe.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez da aplikatuko aurkeztu den autolikidazioan Zerga Administrazioaren aurretiazko errekerimendua jakinarazia duten kontzeptuei eta zergaldiei dagozkien sarrerek daudenean.”

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 196. artikulua:

“196. artikulua. Likidazioak egiteko beharrezkoak diren aitortenak edo agiriak osorik eta modu egokian aurkezteko betebeharra ez betetzeagatiko arau haustea.

1. Zergen arloko arau haustea da autolikidazio prozeduraren bidez eskatzen ez diren zergak behar bezala likidatzeko Zerga Administrazioak behar dituen aitorten edo agiriak osorik eta zuzen aurkeztu beharra ez betetzea, salbuespen honekin: foru arau honetako 27. artikuluan ezarritakoaren arabera erregularizatzea.

2. Aitorpena aurkezten ez bada, zehapenaren oinarria likidazioaren zenbatekoa izango da, edo zergaren likidazio egokiaren eta aitortutako datuen bidez egindakoaren arteko aldea.

3. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkututzen ez bada.

Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatu badira.

4. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da aitortenik aurkezten ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten aitortenak aurkezten direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta duten aitortenak, baldin eta datuak ezkutatzek zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.”

Zortzi. Honela idatzita geratzen da 197. artikulua:

“197. artikulua. Itzulketak bidegabeki lortzearengatiko arau haustea.

1. Zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak bidegabeki eskuratzea arau haustea da.

2. Zehapenaren oinarria, arau haustea egitearen ondorioz bidegabeki itzultitako zenbatekoa izango da.

3. Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena, ehuneko 50etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da, daturik ezkututzen ez bada.

Zergen arloko arau hauste horrengatiko zehapena ehuneko 100etik ehuneko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala izango da datuak ezkutatu badira.

4. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola pentsatuko da autolikidaziorik aurkezten ez denean, benetakoak ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak dituztenak agertzen dituzten autolikidazioak aurkezten direnean, edo eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo zerga zorraren zenbatekoan eragina duen daturen bat falta duten aitortenak, baldin eta datuak ezkutatzek zorrean duen eragina zehapenaren oinarriaren ehuneko 10 baino gehiago bada.”

#### IV. TITULUA

### EUROPAKO ZENBAIT FUNTSEN ZERGA TRATAMENDUA, ETA BERRIKUNTZARI, JARDUERA EKONOMIKOAREN FINANTZAKETARI ETA EKOIZPEN KAPITALIZAZIOARI BULTZADA EMATEKO ZERGA NEURRIAK

#### I. KAPITULUA HELBURUA

##### 7. artikulua. Helburua

Titulu honek Europako epe luzerako inbertsio funtsen, Europako arrisku kapitaleko funtsen eta Europako gizarte ekintzailtzako funtsen zerga trataera ezartzen du, eta Europako funts horien bidez jarduera ekonomikoa garatzeko berrikuntza teknologikoko eta enpresa kapitalizazioko

proiektuen finantzaketa bultzatzeko egiten den inbertsioa sustatzeko neurriak sartzen ditu Arabako Lurralde Historikoko zerga ordenamenduan.

Titulu honetan xedatutakoa Arabako Lurralde Historikoko foru araudia aplikagarri zaien zergadunei aplikatuko zaie, Ekonomia Itunean eta zergak arautzen dituzten foru arauetan xedatutakoarekin bat etorritz.

## II. KAPITULUA EUROPAKO ZENBAIT FUNTSEN ZERGA ARAUBIDEA

### **8. artikulua. Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerga araubidea**

Aldatu egiten da abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, Sozietateen gaineko Zergarenaren, 80. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

“80. artikulua. Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerga araubidea.

1. Kapitulu honetan aurreikusitako araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduan araututako Europako epe luzerako inbertsio funtsei aplikatuko zaie, artikulua honetan xedatutako berezitasunekin.

2. Foru Arau honen 56. artikuluko 4. zenbakian jasotako zerga tasa arestiko zenbakiak aipatzen dituen entitateei aplikatzeko baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Funtsak bere ondarearen ehuneko 95, gutxienez, inbertitu behar du inbertsiorako balio duten aktiboetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Inbertsiogile batek ere ez du izango ehuneko 15etik gorako partaidetza funtsaren ondarean, eduki ditzakeen zuzeneko eta zeharkako partaidetza guztiak kontuan hartuz, foru arau honen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo entitateenak barne.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko erakundeetako inbertsiogileen partaidetzak, halakotzat hartuz Europako Parlamentu eta Kontseiluaren finantza tresnen merkatuei buruzko eta 2002/92/EE Zuzentaraua et 2011/61/EB Zuzentaraua aldatzen dituen 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren II. Eranskineko I. idatz zatiko 1., 2. eta 4. zenbakietan definitutakoak.

### **9. artikulua. Europako arrisku kapitaleko funtsen eta Europako gizarte ekintzailtzako funtsen zerga araubidea**

11. idatz zati berria gehitzen zaio abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, Sozietateen gaineko Zergarenaren, 77. artikuluari. Hona:

“11. Artikulu honetan aurreikusitako araubidea entitate hauei aplikatuko zaie:

a) Europako Parlamentu eta Kontseiluaren Europako arrisku kapitaleko funtsei buruzko 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 (EB) Erregelamenduan araututako Europako arrisku kapitaleko funtsei.

b) Europako Parlamentu eta Kontseiluaren Europako gizarte ekintzailtzako funtsei buruzko 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 (EB) Erregelamenduan araututako Europako gizarte ekintzailtzako funtsei.

Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa, ordea, aipatu Erregelamenduetan xedatutakoaren arabera inbertsio onargarriak diren balioetatik datozen errentei baino ez zaie aplikatuko.”

## III. KAPITULUA

## EUROPAKO EPE LUZERAKO ZENBAIT INBERTSIO FUNTSEN EZAUGARRIAK

**10. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak**

Titulu honetan xedatutakoari dagokionez, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak izango dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 80. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Haien helburu bakarra abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 13. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien entitateek garatutako berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzea izatea.

Hori dela eta, berrikuntza teknologikoko proiektutzat hartuko dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 63. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea sortzen duten jardueri dagozkienak, tartean, ibilgetu materialeko eta ukiezinako elementu berrietako inbertsioak (higiezin eta lurretako inbertsioak izan ezik), elementu horiek eskuratzea beharrezkoa bada berrikuntza teknologikoko proiektua garatzeko.

b) Ematen dituzten maileguen zenbateko nominala 600.000 eurotik beherakoa izatea.

c) Ematen dituzten maileguak itzultzeko epea gutxienez bost urtekoa izatea. Gehienez urtebeteko gabealdia ezarri ahalko da.

d) Ematen dituzten maileguen ordainketak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergenaren, 26. artikuluan aipatzen den berandutze interesen tasaren ehuneko 75 ez gainditzea, eta parte hartzeko maileguak ez izatea.

e) Maileguak elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio seguru batez osorik bermatuta egotea.

f) Mailegua ematea abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 64. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen duen berrikuntza teknologikoko proiektuaren zerga ondorioetarako kalifikazio txostena eskatzeari lotuta egotea.

Berrikuntza teknologikoko proiektuak ibilgetu materialeko eta ukiezinako elementu berrietan egindako inbertsioak barne hartzen dituenean, letra honek aipagai duen proiektuaren ondorio fiskaletarako kalifikazio txostenak identifikatu egin beharko ditu baita berrikuntza teknologikoko proiektua garatzeko beharrezkoak diren aktiboetako inbertsioak ere.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta f) bitarteko letretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte, euren partaideek ekarpena ordaindu eta urtebeteko epean gehienez ere.

**11. artikulua. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsak**

Titulu honetan xedatutakoari dagokionez, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsak izango dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 80. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Haien helburu bakarra hurrengo c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei euren jarduera ekonomikoak finantzatzeko epe luzerako maileguak ematea izatea. Zilegi izango dute entitate mailegu hartzailearen aktiboko ondasunen gaineko berme erreala ezartzea.

b) Ematen dituzten maileguen zenbateko nominala 500.000 eurotik gorakoa izatea.

c) Maileguen hartzaileak abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 33. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateak izatea, antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen ez dutenak, edo bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamendua,

Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 11. artikuluko 1. idatz zatiko b) letrako ii) tartekian aurreikusitako egoeran daudenak eta foru arau horren 13. artikuluko 3. idatz zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

d) Ematen dituzten maileguak itzultzeko gutxienerako epea bost urtekoa eta gehienekoa hamabost urtekoa izatea, eta maileguen ordainketak interes finko bat izatea eta, hala dagokionean, interes aldakor bat ere bai, entitatearen jarduera ekonomikoaren garapenaren arabera, edo, entitate mailegu hartzailearen aktiboko ondasunen gaineko berme erreal ezartzen den kasuetan, bermepeko ondasun horiek merkatuan duten balioaren bilakaeraren arabera.

e) Entitate mailegu hartzaileek jasotako finantzazioa jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzeko, dauden beste batzuk zabaldu edo finkatzeko nahiz enplegu egonkorak sortzeko, eta, tamainak, berritasunak nahiz egin behar diren inbertsioen arriskuak eraginda, kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dauzkaten enpresa proiektuak gauzatzeko erabiltzea.

f) Entitate mailegu hartzaileek lehendik duten zorra euren EBITDA halako sei baino handiagoa ez izatea, eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 47. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar ez izatea.

g) Funtzaren ondarea elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio aseguru batek bermatuta egotea bere zenbatekoaren ehuneko 5ean, gutxienez.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikuluko a) eta f) bitarteko letretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte, euren partaideek ekarpena ordaindu eta urtebeteko epean gehienez ere.

## **12. artikulua. Ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak**

Titulu honetan xedatutakoari dagokionez, ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak izango dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 80. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Helburu bakarra ezohiko aktiboak eskuratzea denean ondorengo c) hizkian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten erakundeei emateko, eta bere jarduera ekonomikoaren garapenari eragiten diotenak.

b) Eskuratutako ezohiko aktiboek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren (Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak) 10. artikuluko e) hizkian zehazten den balio bera edo altuagoa izatea.

c) Aktibo ez-korronteak errentan ematen zaizkien entitateek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 33. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baldintzak betetzea, antolatutako bigarren mailako merkatu batean ez kotizatzea edo, bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamendua, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 11. artikuluko 1. idatz zatiko b) letrako ii) tartekian aurreikusitako kasuan egotea, eta foru arau horren 13. artikuluko 3. idatz zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzea.

d) Funtzak eskuratutako aktibo ez-korronteen errentamendu kontratuek gutxienez bost urteko iraupena izatea.

Hala ere, aktiboak eskuratzen diren unean funtsa indarrean dagoen errentamendu kontratu batean subrogatzen bada eta kontratu horri falta zaion epeak aurreko paragrafoan adierazitako gutxienerako epea gainditzen ez badu, hizki honetan zehaztutako baldintza betetzat emateko, kontratuaren iraupena luzatu egin beharko da bukatzen denean, aktiboa eskuratu den egunetik kontatzen hasita aipatutako gutxienerako epea lortzen den arte.

e) Entitate errentariek ustiapen ekonomiko baten garapenari lotzea aktibo ez-korronteak, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 13. artikuluko 4. idatz zatian aurreikusitako moduan.

f) Funtsaren ondarea elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio aseguru batek bermatuta egotea bere zenbatekoaren ehuneko 5ean, gutxienez.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta e) hizkietan xedatutako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte euren partaideek ekarpena ordaindu eta urte beteko epean gehienez.

### **13. artikulua. Publizitatea eta informazio betebeharrak**

1. Arestiko 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta titulu honetako IV. kapituluan aurreikusitako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpena aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioari, eurak merkaturatu baino lehenago edo, bestela, zerga neurri horiek aplikatu nahi dituzten lehen zergaldia hasi aurreko hiru hilabeteetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Zerga Administrazioak, titulu honetako aurreko hiru artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero, kasuan kasuko funtsa berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsa edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, Ogasuneko zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen hori argitaratu egingo da guztiek ezagut dezaten.

3. Aurreko idatz zatian aipatzen diren Europako funtsek foru arau honen 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeari buruz Zerga Administrazioari aldian-aldian informazioa emateko betebeharra bete beharko dute, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta epeetan.

## **IV. KAPITULUA**

### **BERRIKUNTZARI ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN FINANTZAKETARI BULTZADA EMATEKO ZERGA NEURRIAK**

#### **14. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Bat. 90 ter artikulua gehitzen zaio azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenari. Hona testua:

“90 ter artikulua: Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatikoen kenkaria.

1. Zergadunek berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko zergaldian ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahalko dute, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, zergadunek kenkari berbera aplikatu ahalko dute kreditu entitateetan funts horietako partaidetzak eskuratzeko kontuetan gordailutzen dituzten diru kopuruengatik.

2. Arestiko idatz zatiak aipatzen duen kenkaria ezingo da izan urteko 750 euro baino handiagoa.

3. Gordetako partaidetzak edo kopuruak eurak eskuratu edo gordailua ireki eta bost urteko epean mantendu beharko dira.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen edo gordailuaren titular den zergaduna aurreko idatz zatian aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

Zergadunak ez badu betetzen aipatutako mantentze epea, finantza entitateak ez baditu berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabiltzen gordailututako diru kopuruak, edo funts horiek ez badituzte betetzen martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako betekizunak, bidegabeki kendutako zenbatekoak sartu beharko dira,

dagozkien berandutze interesekin batera. Murriztutako kopuru horri horietako edozein betetzen ez den zergaldiari legokiokeen kuota diferentzialari gehituko zaio eta batuketatik ateratzen den kopurua ordainduko da. Alabaina, zergadunak bidegabeki kendutako zenbateko horiek, dagozkien berandutze interesekin batera, lehenagoko une batean sartzeko aukera izango du.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango zergadunak eskuratutako partaidetzetan baldin eta partaidetza horiek direla-eta zergadunak aplikatu badu foru-arau honen 48. artikuluko 4. zerbakian ezarritakoa.”

Bi. Aldatu egiten da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zergarenaren, 99. artikuluko 2. idatz zatiko f) letra, eta egungo f) letra g) letra bihurtzen da. Hona testua:

“f) Foru arau honen 90 ter artikuluan ezarritako gehieneko muga zergadun bakoitzeko aplikatuko da, alegia, artikulu horretan xedatutakoarekin bat etorriz partaidetzak eskuratzen dituzten edo kreditu entitateetan zenbatekoak gordailutzen dituzten zergadunetako bakoitzeko.”

Hiru. Aldatu egiten da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 105. artikuluko f) letra, eta egungo f) eta g) letrak hurrenez hurren g) letra eta h) letra bihurtzen dira. Hona testua:

“f) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatiko kenkaria.”

Lau. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenaren, 116. artikuluari m) letra berria gehitzen zaio. Hona testua:

“m) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak kudeatzen dituzten entitateei eta, halaber, finantza entitateei, funts horietako partaidetzei dagokienez eta partaidetza horiek eskuratzeko gordailututako diru kopuruei dagokienez.”

#### **15. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga**

Bat. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. artikuluari hamahirugarren idatz zatia gehitzen zaio. Hona:

“Hamahiru. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta eskuratzen diren egunetik hasita bost urte irauten badute zergadunaren ondarean. Zergadunak adierazitako mantentze epea betetzen ez badu edo funtsek aipatutako foru arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko da eta dagozkion ekitaldietako autoliki-dazio osagarria aurkeztu beharko da, eta ateratzen diren diru kopuruak ordaindu, berandutze interesekin batera.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.”

Bi. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. artikuluari hamalaugarren idatz zatia gehitzen zaio. Hona:

“Hamalau. Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsetako eta ekoi-zen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 11. artikuluan edo 12. artikuluan ezarritako baldintzak, kasuan kasukoak, betetzen badituzte, eta eskuratzen diren egunetik hasita bost urte irauten badute zergadunaren ondarean. Zergadunak adierazitako mantentze epea betetzen ez badu edo funtsek aipatutako foru arauaren 11. artikuluan edo 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko da eta dagozkion ekitaldietako autoliki-dazio osagarria aurkeztu beharko da, eta ateratzen diren diru kopuruak ordaindu, berandutze interesekin batera.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.”

Hiru. Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren, Ondarearen gaineko Zergarenaren, 36. artikuluko 2. idatz zatiari hirugarren paragrafoa gehitzen zaio. Hona:

“Autolikidazioan jaso beharko dituzte, halaber, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako, jarduera ekonomikoaren finantzaketa sustatzeko Europako funtsetako eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, baldin eta funts horiek salbuetsita badaude, foru arau honen 5. artikuluko hamahiru eta hamalauugarren idatz zatietan xedatutakoaren arabera.”

#### **16. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarenaren, 9. artikuluari c) letra berria gehitzen zaio. Hona hemen horren testua:

“c) Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsetako edo ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzen jaraunspen edo legatu bidezko eskuratzek, partaidetza horiek martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 11. artikuluan edo 12. artikuluan, kasuan kasukoan, ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta kausatzailearen ondarean egon badira Zerga sortzen den egunaren aurreko urtebetean, gutxienez.”

#### **17. artikulua. Agiri bidezko justifikazioa eta informazio betebeharrak**

Kapitulu honetan jasotako zerga neurriak aplikatu ahal izateko, zergadunek haiek justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Foru arau honen 10., 11. eta 12. artikuluek aipatzen dituzten funtsetako partaidetzei eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko banku entitateetan egindako gordailuei buruzko informazio betebeharren edukia erregelamenduz garatuko da, eta hura betetzeko eskatu ahalko da, kasua bada, zergadunei foru arau honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko eskubidea ematen dieten gordailuak zein finantza entitateetan egiten diren, entitate haiexen bitartez.

### **IV. TITULUA**

#### **PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA**

##### **18. artikulua. 2017ko apirileko izozteak**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergadunek, 2017ko apirileko izozteen ondorioz nekazaritza aseguruaren kontratazioari dagokion nekazaritzako ekoizpenean izandako galera konpentsatzeko diru kopuruak jasotzen badituzte, jasotako diru kopuru osoak 2017ko ekitaldiari edo 2018ko ekitaldiari egoztea aukeratu ahal izango dute, edozein izanda ere diru sarrearen eta gastuen denbora egozpenerako aplikatzen ari diren edo aplikatu izan duten irizpidea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, zeinak egokitzen jotzen dituen neurriak eta prozedurak onartuko baititu, berariazko jakinarazpena egitea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

Lehenengoa. Ezohiko mozkinen berrinbertsioa.

Foru Arau hau indarrean sartu aurretiko indarreko idazkeran, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 36. artikulua ezarritako ezohiko mozkinen berrinbertsioaren barruan sartzen diren errentak erregulazio horretan ezarritakoaren arabera eraenduko dira, nahiz eta berrinbertsioa izan Foru Arau hau indarrean sartu ondoren hasitako zergaldietan.

Bigarrena. Kenkaria 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako behin-behineko neurriak lehengoratzeagatik

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. artikulua 1. atalaren a) eta b) letretan eta 56. artikulua 6. atalean aurreikusitako karga-tipoaren arabera tributatu eta abenduaren 28ko 15/2012 Urgentzia Fiskaleko Dekretu Arauemailean jasotako balantzeen eguneraketari heldu



diotenen eskubidea izango dute kuota osoaren ehuneko 2ko kenkaria izateko, eguneratze horren emaitza den balioaren gehikuntza garbiari dagokion amortizazioaren ondoriozko zergaldiko zerga-oinarrian integratzen dituzten zenbatekoetan.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. artikulua 3. atalaren a) eta b) letretan eta 28. artikulua 15/2012. atalean aurreikusitako karga-tipoaren arabera tributatu eta abenduaren 28ko 1 Urgentzia Fiskaleko Dekretu Arauemailean jasotako balantzeen eguneraketari heldu diotenen eskubidea izango dute kuota osoaren ehuneko 1eko kenkaria izateko, eguneratze horren emaitza den balioaren gehikuntza garbiari dagokion amortizazioaren ondoriozko zergaldiko zerga-oinarrian integratzen dituzten zenbatekoetan.

Xedapen iragankor honetan jasotako kenkariari aplikatuko zaie Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauak.

Xedapen iragankor honetan xedatutakoa 2018ko urtarrilaren 1ean hasitako aldiei aplikatuko zaie.

Hirugarrena: Kenkaria 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako behin-behinekoko neurriak lehengoratzegatik

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. artikulua 1. atalaren a) eta b) letretan eta 56. artikulua 6. atalean aurreikusitako karga-tipoaren arabera tributatu eta abenduaren 28ko 15/2012 Urgentzia Fiskaleko Dekretu Arauemailean jasotako balantzeen eguneraketari heldu diotenen eskubidea izango dute kuota osoaren ehuneko 4ko kenkaria izateko, eguneratze horren emaitza den balioaren gehikuntza garbiari dagokion amortizazioaren ondoriozko zergaldiko zerga-oinarrian integratzen dituzten zenbatekoetan.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 56. artikulua 3. atalaren a) eta b) letretan eta 28. artikulua 15/2012. atalean aurreikusitako karga-tipoaren arabera tributatu eta abenduaren 28ko 2 Urgentzia Fiskaleko Dekretu Arauemailean jasotako balantzeen eguneraketari heldu diotenen eskubidea izango dute kuota osoaren ehuneko biko kenkaria izateko, eguneratze horren emaitza den balioaren gehikuntza garbiari dagokion amortizazioaren ondoriozko zergaldiko zerga-oinarrian integratzen dituzten zenbatekoetan.

Xedapen iragankor honetan jasotako kenkariari aplikatuko zaie Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauak.

Xedapen iragankor honetan xedatutakoa 2019ko urtarrilaren 1ean hasitako aldiei aplikatuko zaie.

Laugarrena. 2018ko urtarrilaren 1etik aurreko zerga-oinarri negatiboak

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak konpentsatuko dira Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 55. artikuluan xedatutakoaren arabera –foru arau honetan emandako idazkerari jarraituz- eta konpentsazioaren epea hogeita hamar urte izango da betiere, sortu ziren momentutik kontatzen hasita.

Bosgarrena. Aplikatzeko dauden kuota-kenkariak, 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan sortutakoak

Aurreko ekitaldietan sortutako kuota-kenkariaren zenbatekoak, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldiaren hasieran aplikatzeko daudenak, aplikatuko dira Foru Arauaren 60. artikulua 8. atalean edo 67. artikulua 7. atalean xedatutakoaren arabera, eta aplikatuko da, betiere, aipatutako aginduetan ezarritako hogeita hamar urteko epean, sortu ziren momentutik kontatzen hasita.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz geratzen dira indarrik gabe abenduaren 13ko Sozietateen gaineko Zergaren 37/2013 Foru Arauaren bosgarren eta seigarren xedapen iragankorrak.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioak, hala ere, artikuluetan adierazten den bezala sortuko ditu.

Hala ere, foru-arau honen III. tituluan eta foru-arau honen 5. artikuluko laugarren atalean ezarritakoak, berriz, 2018ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

*Presidentea*

*PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA*